

Begira

ULMA

2003ko azaroa
4. zkia.

**Mahai-ingurua:
erretiroa hartu dutenekin hizketan**



Solasean:
Txaro Arteaga



Beste begirada:
Javier Galdós

azpimarragarriena... aurkibidea



16

28



31

BEGIRA

LAGUNTZAILE-TALDEA;
Nora Altube, Roberto Mendi, Paloma del Valle, Nerea Zallo,
Peio Bengoetxea, Edurne Unzueta, J.M. Aguriondo

2003ko azaroa
Edizioa: ULMA Taldea
Diseinua: AZK Taldea
Inprimategia: ELKAR S. Coop.

Grupo ULMA S. Coop.
Otañui pas., 3 - 13 posta kutxatila. 20560 OÑATI
Tel.: 943 034900 Faxa: 943 780917
e-mail: begira@ulma.es



3 Hizpidea...

Enpresa-Sustapena: ULMA Taldearen
erronka estrategikoa.

4 Albisteak eta gaur egungo gaiak:

2004ko Forum Bartzelona proiektuaren barnean
munduko bigarren plazarik handiena kanalizatuko
du Ulma Hormigón Polímero negozioak.

Orona eta Fagor Electrodomésticos etxeek ULMA
Carretillas Elevadoras negozioaren aholkularitza dute.

ULMA Construcción negozioak Malagako Laneko
Istripuen Prebentziorako Sektorerako Plana
babestu du.

ULMA Handling Systems negozioak bere azken
berrikuntzak aurkeztu zituen goi-bilera industrial
eta teknologikoan.

ULMA Packaging negozioak loreak ontziratze
ko makinak ezarri ditu Holandan.

14 Solasean:

Txaro Arteaga.

16 Erreportaia:

ULMA Taldeko Berrikuntza eta Garapen Zentroko
lanak hasi dira.

18 Zer deritzozu?

20 Beste begirada:

Javier Galdos.

22 Mahai-ingurua

Erretiroa hartu dutenekin hizketan.

26 Erreportaia

MCCko Kooperatiben arteko Fondoak:
proiektuak finantzatzeko kooperatiben "Bankua"

28 Ezagutu ditzagun gure negozioak

ULMA Construcción: Obra bakoitzerako
irtenbide integrala.

ULMA Agrícola: sektorearen industrializaziorako
berotegiak.

32 40 urte elkarrekin

33 Agenda eta iradokizunak

Erretiroa hartu dutenak.

60ko urteei buruzko gehigarria.

Enpresa-Sustapena: ULMA Taldearen errotka estrategikoa

Duela gutxi, ULMA Taldean erretiroa hartu dutenen Omenaldi Eguna ospatu genuen; bertan parte hartu zuten 210 lagunei, arrazoi batengatik edo besteagatik bertaratu ezin izan zirenei eta, bereziki, utzi gaituztenei bihoakie lerro hauetatik ULMA Talde osoaren mirespena eta esker ona, beren konpromisoaren, lanaren eta ilusioaren bidez eraikitzen lagundu dutenagatik.

Duela 40 urte baino gehiago fundatzaileek eta hauei elkartu zitzaizkien egungo ULMA Taldearen lehen harria jarri zutenean, garapen bide izugarri bati ekin zitzaion, inork imajinatu ere ezin zuen bide bati. 50eko hamarkada amaierako baldintzak gaur egungoen desberdinak ziren, zalantzarik gabe, baina badira denboraren joan-etorrian balio bera duten printzipio batzuk: jarduera batek garatzeko hasiera bat izan behar du lehenengo, eta hasi ondoren, eraikitze gogoa, gauzak egiten jakitea eta sortzen diren aukeren arabera moldatzea, horietatik baitira garapenaren motorrak.

Erretiroa hartu duten gure lagunei egin diezaioketuen omenaldirik onena, zalantzarik gabe, gure ahalegin eta jakinduria guztia, sortzen lagundu zuten ondare horri, ULMA

Jarduera batek garatzeko hasiera bat izan behar du lehenengo, eta hasi ondoren, eraikitze gogoa, gauzak egiten jakitea eta sortzen diren aukeren arabera moldatzea, horietatik baitira garapenaren motorrak

Txomin García

ULMA Taldeko
Zuzendari Nagusia



Taldeari, eusteko eta laguntzeko erabiltzea da, guztiona baita: erretiroa hartu dutenena, orain lanean ari garenona eta, bereziki, etorriko diren belaunaldiena.

Gure inguruan aberastasunak eta enpleguak sortzeko hartu genuen konpromiso soziali horri eustea enpresa eta ekonomia-ingurune horrek baldintzatuko du neurri batean, inguru horretan moldatu beharko baitugu, gure MISIOAN adierazi zenaren ildotik. Eta ingurune horretan daude, besteak beste, globalizazioa, mundu merkatuan herrialde sortu berriak sartzeko pixkana, edota teknologia aplikatuaren sarbidea orokortzea. Horrek guztiak benetako berrikuntzarik ez adierazi arren, edozein produktu motatan eskaintza izugarria izango duen merkatu batera zuzenduko gaitu eta enpresa askori jarraitzeko zailtasunak ekarriko dizkio horrek (Europar, enpresa baten batez besteko bizialdia 7 urtekoa da). Ez gure negozioen iraganeko arrakastak eta ez gaur egungoak ez dute bermatuko gure etorkizuna.

ULMA Taldeak hazkundearen eta enpleguaren esparruetan azken aldiak lorpen handiak izan baditu ere, ULMA Taldeko hainbat erakundetatik garbi ulertu dugu lortu nahi dugun "etorkizun hori irabazteko" zerbait gehiago egin dezakegula eta egin behar dugula. Iaz gauzatutako berrikuspen estrategikoan, ULMA Taldearen Politika Orokorren artean **Enpresen Sustapenerako Politika** txertatzea erabaki zen. Horren bidez, kooperatiba bihurtzeko sustapen berrien garapenean modu aktiboan, gauzak ondo planifikatu eta sendo lan egin nahi da eta/edo egungo negozioen kokapena indartu nahi da, egungo posizio horrekin lotutako jarduerak berri bidez.

Enpresa Sustapenerako Politika ez da ulertu behar egungo negozioen sustapenaren arloko gabezia modura, arlo horri erantsitako ahale-

gin gisa baizik, gure ingurunea horixe eskatzen ari baitzaigu gaur egun eta etorkizunean ere halaxe egingo baitu.

Sustapenerako Politikaren garapenari arrakastaren bidetik ekiteko, lau elementu hauek beharko ditu funtsean: ekimen handiko **personak**, negozio aukera berrien **ideiak**, **baliabide finantzarioak** eta berrikuntza eta sustapena bultzatuko dituen **ingurunea**.

Taldearen Sustapen Politikak lau elementu hauetan lan egitea aurreikusten du: Taldean ekimen handia duten pertsonen, sustapenaren arloan dituzten kezkek eta gaitasunak garatzen lagunduko zaie, garapen pertsonal eta profesionalerako eskaintzaren ikuspuntutik; sormen eta berrikuntza prozesu bat garatuko da, metodologikoki negozio ideien eta aukeren identifikazioa erraztuko duena; Sustapen Fonda antolatuko da (3 milioi Euro hurrengo lau urteetan); eta ULMA Taldearen Berrikuntza eta Sustapen Zentroa sortzea.

Gure Sustapen Politikarekin lotuta eta duela 40 urte gaur egungo ULMA Taldearen lehen harria jarri zutenean espiritua eta irakasbidea kontuan hartuta, Oñatiko Udalarekin batera Oñatiko Unibertsitate eta Teknologia Hiriaren proiektua bultzatzen ari gara; etorkizuneko proiektu horrek gure ingurunerako nahi dugun etorkizuna eraikitzen lagunduko du. Proiektu handi horren lehen fasea martxan da jada Urrutxu inguruan, eta ULMA Taldearen Berrikuntza eta Garapen Zentroaren instalazioa, Packaging-eko Zentro Teknologikoa, ULMA Handling Systems-en planta berria eta esleitu gabeko beste sail bat gehituko zaizkio honi.

Lehenengo urratsak eman dira, aurrera begira gure esku dago errealitate bihurtzea.

2004ko Forum Bartzelona proiektuaren barnean munduko bigarren plazarik handiena kanalizatuko du Ulma Hormigón Polímero negozioak

■ ULMA Hormigón Polímero negozioak 2004ko FORUM Bartzelona proiekturako kanalak egingo ditu. Nazioarteko jardunaldi hori 2004ko maiatzetik irailera bitartean ospatuko da Bartzelonan. Proiektu horren barnean, munduko bigarren plazarik handiena egingo da, Pekingo Tianamen plaza ezagunaren ondoren bigarrena.

Obra horiek guztiak egin ahal izateko, SELF350K EREDUko kanal berezi bat eta 200 eta 300 mm zabaleko kutxeta berezi batzuk erabili dira. Egin den kanal horrek orain arte merkatuan existitzen ez ziren neurriak ditu (ZABALERA OSOA 360 mm eta ALTUERA OSOA 210 mm), eta kutxetek berezitasun bat dute: 500 mm-ko altuera eta 315 mm-ko hodi baterako prestatuko irteera dituzte, Bartzelonako CLABSA-

alcantarillado etxeak eskatzen zuena betez. Produktua obraren beharretara egokituz gauzatzeak Bartzelonan hirigintzaren esparruan erreferentzia berri bihurtuko den lan honen kontratazioa egiteko aukera eman du. 2004ko Forum Bartzelona proiektua nazioarteko egitasmo bat da, XXI. mendean gizadiak aurrean izango dituen erronka kultural eta sozialen inguruan elkarriketa eta gogoeta egiteko espazio bat osatzeko helburuz sortua. 2004ko Forum Bartzelonak hiritarrei banaka edo taldean elkarrizketetan eta gogoetetan parte hartzeko aukera emango dien gunea adieraziko du. Bost hila-betez, 2004ko Forum Bartzelona erakusketek, kongresuek, hitzaldiek eta arte-jaialdiek osatuko dute, eta baita kulturaren eta aisiaren esparruko hainbat jarduerak ere.



Jaume Capdevila
Ordezkarria

> "2004ko FORUM Bartzelonaren kontratazioak benetako erronka baten aurrean jarri gaitu eta negozioko guztion ahaleginenez egin dugu. Lan horiek garrantzi berezia dute Bartzelonarentzat, 1992ko Olinpiadetatik hirigintzaren esparruan egin den birmoldaketarik handiena adierazi baitute. Beste ezer baino lehen, kontratazio hori egia egiten lagundu duten guztiei eskerak eman nahi dizkiet. Ez da erraza izan, lehia handia izan baita eta oso prezio baxuak eskaini baitira. Baina proiektua egin duten ingeniariekin aurretik lankidetzan aritzeak presio hori alferrikako egin zuen, izan ere, teknikoki, eskatzen ziren baldintzak guk soilik betetzen baikenituen. Beraz, badakizue, Bartzelonara joaten zaretenean eta Forum ingurutik pasatzen zaretenean... **BEGIRATU LURRERA! Animo eta agur!**".

ULMA Construcción negozioak produktuen ziurtagiri berriak lortu ditu



ULMA Construcción negozioak duela gutxi norabide anitzeko BRIO aldamiotarako ziurtagiri berriak lortu ditu. Zehazki, hauek dira: N Ziurtagiria BRIO 700 aldamiotarako eta N Ziurtagiria BRIO 100 aldamiotarako. Biak NF markarekin erregistratutakoen antzekoak dira.

Ziurtagiri berri horiek Normalizaziorako eta Ziurtagirietako Elkarte Espainiarrak (AENOR) eman dizkio ULMA Construcción negozioari. Erakunde horrek, produktuaren entseguak egin ondoren, bera egiteko erabilitako kalitate-sistema aztertu du eta UNE 76502:1990 araura (HD 1000:1988) egokitzen den ikusi du. Bi ziurtagiriek 2008. urte arteko indarraldia dute eta urte horretan berriro entsegu eta egiaztapen berberak egin beharko dira berritu nahi izanez gero. Bestalde, Û Egiaztagiria ere lortu du, EP eskora europarren diseinu berriari lotuta. Laster merkaturatuko dira. SIGMA Karlsruhe GMBH etxeak, ziurtagiri hau eman duen erakunde alemaniarrak, 2006. urte arteko indarraldia eman dio, erabilitako sistemak eta fabrikazio-moduak EN 1.065 arauan adierazten diren zehaztapenak betetzen dituela egiaztatu ondoren. Irudietan, Sigma Karlsruhe GMBH etxeak ULMAri emandako ziurtagiria.



ULMA Handling Systems: are liderrago hotzaren logistikan

Aurrez prestatutako eta izoztutako ogiaren fabrikazioan eta banaketan espezializatutako Huelvako Pamfrost etxeak ULMA Handling Systems negozioari hozkailu automatiko berriaren proiektuaz, lanketak eta abian jartzeaz arduratzeko eskatu dio. Pamfrost-en aplikatutako irtenbideak -23 °C-ra 1.584 palet biltzeko gaitasuna duen hozkailua hautatu du. Instalazioak L-500 ereduko igogailu bat du, azpi bikoitzekoa, eta hiru urte sasotan fabrikatzaileak eskatzen duen fluxu logistikoa bermatzen da horrela. Konpainiak lan gehien duen sasoa ekainetik irailera dela kontuan hartuta, ULMA Handling Systems etxeak emango dion irtenbideak eguneko 170 paletako sarrera eta 270 paletako irteera duen fluxua bermatuko du.

Eskaeren prestaketak "picking" erako "U" bat osatuko du eta, bertan, 8 orduko lanaldian 100 eskaerako eta eguneko 300 lineako kopurua sortuko da.

Picking postu horretan, "put to light" sistema ezarri da, eskaeren prestaketa dezente arinduko duten zazpi argi-posturekin.

Operazio logistiko guztietan tenperatura kontrolpean eduki behar denez, nahitaezkoa izango da teknologia aurreratua erabiltzea tenperatura hotza bermatzeko. Horregatik, osagai mekaniko eta elektriko guztiek erresistentzia handia izan behar dute.

Produktu hotzen sektorean (izoztutako produktuak) ULMA Handling Systems negozioak irtenbide garrantzitsuak eskaini ditu eta horrelako instalazioen garapenean erreferentziatzeko ingeniari-tza logistikoa izatera iritsi da. Panificadora Artadi, Precocinados Benetan edo Discefa dira tenperaturaren kontrol zorrotza eskatzen duen irtenbidea garatzeko konfiantza osoa ULMA Handling Systems negozioan jarri duten etxe batzuk.



ULMA Agrícola negozioak Ikerketa Zentro bat ezarri du El Salvadorren.

ULMA Agrícola negozioak El Salvadorren ezarritako Ikerketa Zentroa oihan inguru batean dago, Hondurasekin mugan dagoen mendi inguru batetik gertu. 540 m²-ko modulu baten instalazioa da, eta etorkizunean beste batzuekin hedatuko da. Ongarri-dun ureztapenerako instalazioa, pantaila termikoa eta klimaren kontrolgunea ditu. Berotegiaren ondoan, biltegia eta inguruko nekazariei produktzio intentsiboaren inguruko eskolak emateko eskola-lantegia daude, aterpe baxuko laboreak sendotzeko asmoz. Zentro hau abuztuan ireki zuten eta inaugurazio ekitaldian izan zen Hondurasko Gobernuako presidenteordea; sektore honetan Europak garatu duen teknologian eta esperientzian interes handia azaldu zuen. Gaur egun, berotegiaren barnean labore hidroponikoen inguruko azterketak, berritzeko kubeta plastikoen ingurukoak eta kalibratutako laba bolkanikoko substratuaren ingurukoak egiten ari dira, eta oso emaitza positiboak lortu dira orain arte. Irudietan, El Salvadorko Ikerketa Zentroa.

ULMA Handling Systems: logistika irudimenaren zerbitzura. Imaginarium

Irudimenaren mundua sortzea izan zen jostailuen enpresek jostailuen kontzeptu berria garatzeko oinarriko gakoak. IMAGINARIUM etxeak 11 urteko esperientziaren bidez lau kontinenteetan bere lekua izatea eta Espainiako 100 hiri baino gehiagotan kokatzea lortu du.

Azken urteetan izan duen hazkunde horrek bultzatuta, IMAGINARIUM etxeak eskaeren eta bidalketen presaketara automatizatuzko irtenbide logistiko aurreratuagoak hartu ditu. ULMA Handling Systems negozioak eman dion irtenbideak 2 VTD orga transferitzaileko sistema bat du, biltegiko, presaketako eta eskaeren sailkapenerako guneak dituena. Garraio-sistema horrez gain, instala-

zioak irteerako hiru garraiagailu eta sarrerako beste hiru ditu, produktuak biltegitratzea eta bidaltzea errazago egiteko. Paketeak egiteko sarrerako linean kokatutako makina batek biltegitratzeko prest dagoen materiala biltzen du.

Produktibitatea ahalik eta gehien handitzeko, eskaerak prestatzeko sistema bat diseinatu da, hainbat langilek aldi berean eskaeren estazio berean lan egiteko prestatuta dagoena. ULMA Handling Systems negozioak emandako irtenbideak eskaera bakoitzerako langile bakoitzak utzi behar duen kopurua eta erreferentzia adierazten duten pantailak ditu, horrela, ohiko sisteman egiten ziren okerrak saihesteko.



BA AL ZENEKIEN...

- Mondragon Korporazio Kooperatiboak eta Eusko Jaurlaritzak Ingurumen Sailean hitzarmen bat sinatu dute, MCCko enpresek esparru horretan garatutako jardueretan aurrera egiteko eta jarduera horiek sendotzeko. Hitzarmen hori indarrean izango da 2004ko abenduaren 31 arte eta Garapen Jasangarrirako EAEko Ingurumen Estrategiarekin bat datozen helburuak planteatzen ditu; horregatik, MCCk konpromiso sendoa hartu du bere enpresetan ingurumen-legedi berria onartzeko, hornitzaileekin eragile lekua hartzeko, bere kooperatibak ISO 14.001 Ziurtagiria lor dezaten saiatzeko, etorkizunean europar esparruko EMAS II erregistroan sartzeko –aldian behin memoriak egiteko obligazio-maila handiagoa adierazten du honek– eta IPPC (Kutsaduraren Babes Integrala) Jarraibidearen eraginpeko MCCko enpresak Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren eta sektore horien artean ezartzen diren hitzarmenetan sartzeko.



IRIZAR KOOPERATIBARA EGINDAKO BISITA.

ULMA Taldeko negozioen ordezkariek osatutako talde batek irailan Irizar kooperatiba bisitatu zuen. Luxuzko autobusak egiten ditu enpresa honek. Bisitaren helburua Irizar Proiektua hobeto ezagutzea zen, pertsonengan oinarritutako proiektu hau gaur egun erreferentzia garrantzitsu bihurtu baita MCCko gainerako kooperatibentzat. Irudietan, Irizarako presidentea, Juan Jesús Anduaga, ULMAko ordezkarien ondoan.

ORONA eta FAGOR Electrodomésticos etxeek ULMA Carretillas Elevadoras negozioaren aholkularitza dute



■ Gipuzkoako ORONA eta FAGOR Electrodomésticos etxeek uste osoa jarri dute ULMA Carretillas Elevadoras negozioaren aholkularitzan eta salmenta osteko zerbitzuetan, batik bat kargako material eta unitateen erabilerara eta biltegiatze egokia egiteko, hauek, dituzten neurriak kontuan hartuta, igotzeko eskorga bereziak behar baitituzte.

ULMA etxearen HUBTEX eskorgak korridore estuetan karga luzeak mugitzeko diseinatuta daude bereziki, eta horiek eskaini dituzte, espazio txikietan irtenbiderik onena adieraz-

ten dutelakoan. Izan ere, bai FAGOR etxeak (zuzeko oholak) eta bai ORONA etxeak (altzairuzko xafla luzeak) erabiltzen dituzten kargak oso luzeak dira.

Norabide anitzeko eta korrante alternoko eskorga elektrikoak, Hubtex markako 2120 eta 2121 seriekoak, oso sendoak eta erabilerrazak dira, eta hauen bidez luzeak (12 metro arte) eta sakonak (2 m arte) diren salgaiak mugitu daitezke; karga-ahalmena ere 1,5 tonatik 3ra bitartekoa da. Hainbat sektoretako bezeroak oso pozik daude eskorga hauekin, besteak beste zur-

gintzako industriako bezeroak, aluminiozko profilen eta leihoen fabrikazio-koak, altzairu-fabriketakoak...

Trakzio-motorrean abiadura, azelerazio eta potentzia-indize onenak eskaintzen ditu korrante alternoko teknologiak eta produktibitate handia bermatzen du, energia aurrezteko, zarata-maila murrizteko eta mantenu-gastuak jaisteko aukera emanaz. Izan ere, HUBTEX ekipoen egitura modularrak osagaien sarrera errazten baitu eta mantenu eta konponketa-lanak arinago egiteko aukera ematen baitu.

ULMA Hormigón Polímero negozioarentzat aireztatutako fatxaden produkzio-instalazio berria

Aireztatutako fatxaden merkaturatzean, gure negozioaren zati handi baterako garrantzi handia zuten mugarri batzuk zehaztu ziren.

Orain produkzio-linea berriaren instalazio-faseari ekin zaio, aurrez hornitzaileekin eskaintza-motak konparatu ondoren.

Muntatutako produkzio-linea urte amaierarako osatu beharko da, horrela, serieen aurrekoak berehala homologatzeko eta 2004ko urtarrietik aurrera fabrikatzen hasteko.

Ilido komertzialari dagokionez, linea berri horretan produkzioa bermatzeko eskaintzak eta kontratuak bilatuko dira, une honetan egiten ari diren lanak aparte utzita.

Valentziako Canet Auditorium-aren sarrera amaituta dago jada, eta Denian, Turismoko Irakaskuntza Zentroa exekuzio fasean da (1.500 m²), eta baita Logroñoko La Cavako etxadi bat ere (3.700 m²).



BA AL ZENEKIEN...

- Urriaren 31n ULMA Taldearen barnean erretiroa hartu dutenei omenaldia egingo zaie. Oraingoan, programa ekitaldi hauek osatuko dute: Santa Anako auditorioan ongietorria, kooperatibei bisita eta, ospakizunen ekitaldi nagusia, Arantzazuko Ostatuan bazkaria. ULMA Taldean 2003ko irailera arte erretiroa hartu dutenak 249 gizonezko eta 9 emakume izan dira.



ULMA Construcción negozioak Laneko Istripuen Prebentziorako Malagako Sektorearteko Plana babestu du

■ Eraikuntza Lanetako Taldeko Babes Ekipoen eta Materialen 1. Azoka-Erakusketara egingo da Malagan azaroaren 26tik 28ra, Enplegu eta Garapen Teknologikoko Probintziako Ordezkaritzak, Lan eta Gizarte Segurtasuneko Probintziako Ikuskaritzak, Probintzia Diputazioak eta Udalak, Enpresaburuen Konfederazioak, Probintziako Mutuek, Elkargo Ofizialek, Sindikatuek, Eraikuntza Etxeen eta Promotoreen Probintziako Elkarteak eta Eraikuntzako Lan Fundazioak antolatuta.

Azoka hori, Eraikuntzaren esparruan Laneko Istripuen Prebentziorako Malagako Sektorearteko Plana abian jartzeko garatu beharreko ekintza eta jardueren atariko zereginekin lotuta dago.

Sektorearteko plan horren oinarria, zeregina eta ikuspuntua ahal den neurrian Malagako hiriburuan eta probintzian obrako aldamio batetik erortzeagatik izaten diren EZBEHARRREN KOPURUA saihestea eta/edo murriztea da. Helburu gisa funtsezko bi puntu azpimarratu dira: 2004ko abenduaren 31rako, Malagako hiriburuan eta probintzian segurtasunik eta ziurtagiririk gabeko aldamiorik ez egotea ezarrita, eta probintzia barruko ziurtagiririk gabeko aldamioen esparruan Renove plan bat ezartzea. ULMA Construcción negozioarentzat bere aldamioen sistemak ezartzeko aukera ona da, segurtasunez jokatzuz, Malagan BRIO eta DORPA aldamioekin egindako obra guztietan. ULMAk,


gainera, azokan bertan egingo diren Altueratik Erortzea Saihesteko Saio Teknologikoetan parte hartuko du, "Seguridad en Andamios" txostenaren bidez.

Horrez gain, ULMA plana babesten duten erakunde eta organismo guztiekin batera Sektorearteko Plana lantzeko osatutako mahai eta batzordeko kidea da. ULMAk aldamioen esparruan garatutako eza-gutzak bultzatuko ditu, Planak aurrera egin dezan eta 2004an Malagako hiriburuko eta probintziako obretan ezarritako aldamioak ULMA markakoak izan daitezten. Proiektu handizalea da, datozen urteetan Andaluziako gainerako probintzietara zabaldu daitekeena.

BA AL ZENEKIEN...

— 2002. urtean ULMA Taldearen salmenta guztietatik (344,3 milioi euro), banaketa honako hau izan zen, inguru geografikoen arabera:

* Milaka eurotan





ULMA Taldearen 3.500 irudi baino gehiago, Irudien Banku Digital berriaren esku



Irailetik, ULMA Taldearen Irudien eta Artxibategi Digitalen Banku berria fase esperimentalean dago. Banku horrek 3.500 irudi eta artxibategi baino gehiago biltzen eta sailkatzen ditu. Web-helbide baten bidez (www.ulma-imagenes.com) eta dagokion kontrazeinuarekin, erabiltzaileak datu-baseko orrialde nagusira jo dezake eta bertatik nahi dituen argazkiak eta artxibategiak ikusi eta jaitsi ditzake. Bankuak argazki ugari ditu, 60ko hamarkadatik gaur egun artekoak. Gure hasierako irudiak ikus daitezke unean bertan, edota ULMAren eta bere kooperatiben historiako une garrantzitsu eta gogoangarriak eta gaur egungo ULMA Taldearen eta bere negozioen argazkiak. ULMA Taldearen Irudien eta Artxibategi Digitalen Bankua, oraindik esperimentazio-fasean egon arren, teknologia berrien aplikazioan oinarritzen den zerbitzua da, eta gure argazkien ondarea etengabe biltzeko, hautatzeko eta sailkatzeko aukera ematen digu.

ULMA Forja sektoreko azokan Singapurren. Joan den irailean, hilaren 23tik 25era, Singapurren Tutu eta Kablearen Bienala izan zen. Bertako erakusketetan berriro ere parte hartu zuen ULMA Forja negozioak eta negozio honen bridak nabarmendu ziren batik batik, beren kalitateagatik. Azokako egunei dagokienez, oro har jendetza handirik ibili ez bazen ere, azoka oso arrakastatsua izan da banaketarako kontaktuak eta lortu diren eskariak kontuan hartuta. Irudietan, ULMA Forja negozioaren erakusmahai Singapurren.

ULMA Carretillas Elevadoras negozioak alboko kargetarako HUBTEX eskorgen banaketa eskusiboa lortu du

■ Bezeroen behar logistikoei ahalik eta irtenbiderik osoena eman nahian, ULMA Carretillas Elevadoras negozioak bere eskaintza hedatu eta espezializatu egin du, espainiar Estatuan HUBTEX marka alemaniar ospetsuaren banaketa eskusiboa bereganatuz. ULMA Carretillas Elevadoras negozioak, Produktu eta Kalitate sailean egindako ikerketa eta berrikuntzalanek esker, sektore askoren mantentze-beharrei irtenbide teknikoak eta praktikoak eskaintzen dizkie, zura, aluminioaren, metalaren eta plastikoen sektoreetan, esaterako, alboko kargetarako HUBTEX igotzeko eskorgen saila aurkeztuz. HUBTEX eskorgak korridore estuetan karga luzeak mugitzeko diseinatuta daude bereziki, leku txikietarako irtenbiderik onena adierazten dute, ez baitute biratzeko aparteko lekurik behar; horregatik, eskorga bera baino zertxobait zabalagoak diren korridoreetan ere lan egin dezakete. Ergonomia, moldagarritasuna, gidatzeko erraztasuna, zorrotasuna eta osagaiak erabiltzeko erraztasuna dira

alboko kargarako HUBTEX eskorgen gama honen arrakastaren gakoa; eta, gainera, mantentze-kostuak murriztu egiten dira. Hauen artean bi norabidekoak edo norabide anitzekoak eta motor termikokoak edo korronte alternokoak bereizten dira. ULMA etxeak alboko kargako Hubtex eskorgak aurkeztuko ditu Fimma-Maderalia Zuraren Makineriarako Nazioarteko Azokan. Valentzian ospatuko da azoka hori, azaroaren 12tik 15era, eta bertatik bertara Hubtex eskorgen ezaugarriak eta abantailak erakusteko aukera emango dio horrek. Izan ere, adibidez zuraren sektorean espezializatutako taldeen bidez, irtenbide logistiko egokia ematera zuzenduta daude eskorga horiek, eta nazio eta nazioarteko izaera duen azoka honetan protagonista zura da.





Cadizko Mendilerroko Mankomunitateko 7 proiektu berriren exekuzioa ULMA Agrícola negoziolari esleitu zaio.

Iazko urtean oso esperientzia positiboa izan ondoren, Cadizko Mendilerroko Mankomunitateak materiala eta laguntza teknikoa ULMA Agrícola negoziolari eskatu dizkio berriro, inguru horretan zazpi proiektu ezartzeko. Horietako bakoitza 4.500 m²-koa da. 2002. urtean, ULMA etxeak Cadizko Mendilerroko Mankomunitaterako 6 instalazio egin zituen eta instalazio horien xedea nekazaritzako sail ekologikoak hedatu eta garatzea zen. ADEHESAk sustatutako proiektu horiek Europar Batasunaren diru-laguntzei esker gauzatzen dira eta Andaluziako Juntako nekazaritza-teknikariak gainbegiratu eta onartu behar izaten dituzte. Instalazio horiek egin ahal izateko, 2002. urtean ULMA Agrícola negoziarioak 6 pertsonako talde bati berotegiaren muntaiarako eta zimenduak jartzeko prestakuntza teknikoa eman zion eta, horrela, hauek izan ziren Olvera, El Gastor, Espera, Bornos, Prado del Rey eta Arcos de la Frontera udalerrietan egin ziren obra horiek zuzentzeaz arduratu zirenak. 2003. urtean, esleitu zaizkion zazpi proiektuetatik bost iazko urteko udalerrietan ezarriko dira eta, noski, horrek argi erakutsi digu bezeroak pozik utzi zituela ULMA Agrícola negoziarioak.

BA AL ZENEKIEN...

- Presazko izaera, Puertollanon Repsol etxearen plantarako bridak saltzen ari da ULMA Forja. Planta hori guztiok izango dugu gogoan, abuztuan leherketak bat izan baitzen bertan eta hainbat langile hil baitziren. Leherketak 1. unitatean eragin zituen kalteak, eta honek hornitzen ditu finketarako gainerako lineak. ULMA Forja negoziarioa, zehazki, Cuñado enpresak Puertollanon duen biltegiari bridak saltzen ari da. Eskaria ez da oso bolumen handikoa, baina presaka ari dira eta horrek produkzioan aldaketarik eragin ez dezan saiatzen ari dira.

ULMA Carretillas Elevadoras negoziarioak AENOR-en EMPRESA ziurtagiria lortu du

ULMA Carretillas Elevadoras negoziarioak irailean AENOR etxearen eskutik Enpresa Erregistroa lortu zuen "Igotzeko Eskorgen Muntaketa eta Merkaturatzea" jardueran; Kalitate-sistema UNE-EN 9001:2000 arauarekin bat datorrela egiaztatzen du horrek.

Kalitate Kudeaketako Sistemaren garapenak pertsona askoren ekarpenak eta esku-hartzeak bildu ditu eta, batez ere, bezeroen asetasun-

maila indartzea lortu nahi du, etengabeko hobekuntzaren eta prozesuetan oinarritutako ikuspegiaren bidez eskatzen zaizkion baldintzak betez.

Ziurtagiri horrek ULMA Carretillas Elevadoras negoziarioaren misioaren asmoa azpimarratu du eta Kudeaketa Estrategiaren Estandarizazioaren atala-HOBEKUNTZA-indartu du bereziki. Honen oinarriak Konpainia txikien kudeaketa,

Prozesuen bidezko kudeaketa eta Helburuen hedapena dira.

Negoziarioaren hurrengo helburua 2004. urtean "Kudeaketako Sistema Integratua" ezartzea izango da, eta honek barnean Kalitate Sistema (ISO 9001:2000), Segurtasuna (Lagun Aro Mondragón-en Eraikiz eredia) eta Ingurumena (ISO 14001) hartuko ditu, ULMA Carretillas Elevadoras negoziarioan EFQM Eredua garatzeko funtsezko baldintza diren neurrian.

ULMA Handling Systems negozioiak bere azken berrikuntzak aurkeztu zituen goi-bilera industrial eta teknologikoan



■ Irailaren 24tik 27ra, ULMA Handling Systems negozioiak bere berrikuntzarik adierazgarrienak aurkeztu zituen Bilboko Nazioarteko Azokaren barnean egin zen Goi Bilera Industrial eta Teknologikoan. Aurtengo edizioan, ULMA etxeak zenbait puntutan garraio-beharrak asetzeko diseinatutako bi STV orga (Sorting Transfer Vehicles) aurkeztu zituen. Besteak beste Sevillako Coca Cola-ren Banaketa Zentroan ezarritako garraio-sistema honek


abantaila handiak eskaintzen ditu beste garraio-sistema batzuekin alderatua eta kadentzia handia, mantentzeko erraztasuna, malgutasuna eta banaketarako nahiz fabrikazio automatikorako eskaintzen dituen aplikazio ugariak dira bere ezaugarri nagusiak. Horrez gain, ULMA Handling Systems negozioiak argien aplikazio askotarikoak aurkeztu zituen, eskarien prestaketan produktibitatea hobetzeko eta modu elektronikoa

materialaren mugimendua kontrolatzeko aukera ematen baitu. Pick to Light teknologiaren bidez, langileak, azkar eta intuizioz, garatu beharreko operazioaren kokapena eta kopuru zehatza jakingo dituzte (pick/put), LED argiztatua eta pantailen bidez. 1.140 erakusmahai ezarri ziren guztira, 540 atzerrikoak, Azpikontratazioaren, Makineriaren, Ekipoen eta Osagarrien, Teknologia eta Logistikaren eta Mantenimenduaren esparruetan.



ULMA Packaging negozioiak Arantzazurako 6. igoera ospatu zuen.

Parte-hartzaileen kopuruak errekorra hautsi zuen, bidean 85 "saiatu" baitziren. Antolamendua oso ona izan zen eta eguraldiak ere lagundu zien txirrindulariei. Horrelaxe ospatu zuen ULMAk Arantzazuko Santutegira antolatzen duen 6. igoera. Proba amaitu zenean, anaiarteko bazkaria egin zen eta igoeran parte hartu zutenek gain, kronometratzaileak, bideo kameralariak, motorzaleak, erratza daraman autoaren gidariak, errepidea moztzen lagundu zutenak etab. ere bildu ziren bertara. Guztira 100 pertsona. Irudietan, eguneko argazkiak: igoera, bainua, bazkaria eta sarien banaketa.



Aldizkariarekin gustura al dago jendea?

Dakizuenetz, irakurleak Begira aldizkariarekin gustura dauzuten jakiteko inkesta bat egin dugu irakurleen artean eta, parte-hartzea guk nahi adinako izan ez bada ere, argitalpen honi buruz iritzi ona duzuela ikusi da. Zuen iradokizunak eginez parte hartu duzuen guztioi, eskerrik asko.

ULMA negozioak pertsonen asetasun-maila jakiteko ebaluazio-prozesu bat abiarazi du

■ Azken hilabeteetan, ULMAk Taldeko Negozioetan Pertsonen Asetasun Maila Ebaluatzeko Prozesuaren Kudeaketa Sistematorako Proiektua abiarazi du. Pertsonen asetasun-maila ebaluatzeko sistema horren helburua hau da: ULMA Taldearen negozio guztietan, ebaluazio prozesuaren garapena sistematikoki eta modu homogeen egiteko modua emango duen euskarri teknika eskaintzea, horrela erakundeari prozesua etengabe gauzatzeko tresna autonomoa eta sistematizatu emanaz. Pertsonen asetasun-mailaren ebaluazio sistematikoa eginez, honako hel-

buru hauek lortu nahi dira.

- Pertsonen asetasun maila aldian-aldian ebaluatzeko sistematizazioa eskaintzea, asetasun-maila neurtuz hobetzeko ekintzak orientatu ahal izateko.
- Informazioa sorraraztea eta berau egituratu eta sailkatzeko moduak erraztea.
- Prozesuaren emaitzak eta bere bilakaera aztertze eta konparatzeko modua ematea, horretarako parametro desberdinak erabiliz (negozioen arabera, arloka, adinaren arabera, EFQM irizpideen arabera, kanpoko hobekuntza

praktikoen erreferentzien arabera etab.).

- Asetasunaren inguruko lehentasun faktoreak sustatzera eta ebaluazio-prozesuan asetasunik eza adierazten duten puntuak zuzentzera zuzendutako hobetzeko ekintzen plangin-tza egitea, ekintza horiek zabaltzea eta jarraipena egitea, negozioaren eta ULMA Taldearen helburu estrategikoak aintzat hartuta.

Proiektua abiarazteko fasea ekainean hasi zen eta 2003. urtearen amaierarako sistema hau eraginkorra izatea espero da.

BA AL ZENEKIEN...

- ULMA Agrícola negozioak Software tekniko komertzial berria garatu du, eskaintzak eta aplikatuko diren proiektuak lantzeko modua automatizatzeko xedez. Horretarako, estalpeko babesgailu-moten ezaugarriak eta funtzioak eta merkatuak eskatzen dituen ekipamenduak hartu dira kontuan. Berotegi-mota definitu eta aurrekontua kalkulatu ondoren, sistema hori bertako zonen irudikapen grafikoa egiteko gai dela azpimarratu behar dugu (aurrez zuinketa-planoa sartuz gero) eta, bertan, berotegiaren osagaiak eta ekipoak zehazkiago ikusi ahal izango dira.
- 2003ko irailaren 30ean ULMA Taldearen Finkatutako Salmenta Osoak 265.899 mila eurotakoak dira, hau da, Kudeaketa Planean aurreikusitakoaren % 101 eta, aurreko ekitaldiarekin konparatuta, % 104. Finkatutako Nazioarteko Salmentak 75.484 mila eurotakoak izan ziren, hau da, Kudeaketa Planean aurreikusitakoaren % 85 eta, aurreko ekitaldiarekin konparatuta, % 93.

ULMA Forja negozioak CNCdun transfer makina berria erosi du



Urriko lehen astean, ULMA Forja negoziara Fitting Forjatuko Mekanizaziorako transfer makina berri bat iritsi zen Gnutti-tik (Italia). Makina hori ukondoen eta "T" piezen (1"-2" NPT) mekanizazioan espezializatuko da eta urteko 290 tona inguru emango ditu txanda bakoitzean egungo fabri-

kazio-gaitasuna gaindituz, egungoa baino lan-prozesu egonkorragoa eta fidagarriagoa eskaintzeko.

CNCdun transfer makina bat da, aurreko operazioetan (zulatzea, aurpegitzea eta otxabutzea) ardatz bakar batean lan egiteko gaitasuna duten 13 unitatekoa; 15



Iker Leonet eta ULMA-CEGASA txirrindulari taldea Lehendakari Sariaren irabazle. ULMA-CEGASA txirrindularitza-taldeko Iker Leonet txirrindulariak irabazi du Lehendakari Saria amateur kategorian. Lasterketa ez zen Oñatin korritutako azken proba arte erabaki eta, taldeen sailkapenari dagokionez, ULMA-CEGASA taldea ere irabazle suertatu zen. Iban Iriondok, ULMA-CEGASA taldekoak, 23 urtez azpiko kategoriako Hasi Berrien Saria irabazi zuen. Irudian, ezkerretik eskuinera ULMA-CEGASA taldeko Joseba Luis Urcelai, Iban Iriondo eta Iker Leonet txirrindulariak Orbea taldeko beste bi txirrindularirekin batera.

Kw.-ko burua duten motorrak eta serbomotordun eta CNCdun komandoko torloju bidezko aurrerapena ditu; bi ardatzetan lan egiteko gai diren hiru unitate ditu (torneatua) barnealdeko hariak egiteko. Ardatz guztien agintea serbomotorren eta CNC bidez egiten da,



ULMA Packaging negozioak loreak ontziratzeko makinak ezarri ditu Holandan

■ Holandako Lore-saltzaileen Elkartek (VBN) Flow Pack-erako ontziratze-makinak eskuratzeko aukeraturako bi enpresatariko bat izan da ULMA Packaging; guztiak Anthurium motako loretarako dira eta Holandako lurraldean hedatuta dauden 85 zentrotan ezarriko dira. Orain arte lore horiekin horrelako lanak eskuz egiten ziren, oso hauskorrak baitira ontziratze, baina elkarte horren eta guk Holandan ditugun komertzialen arteko harremanei esker, loreak

kontu handiz zaintzen dituen eredu bat egin ahal izan da. Horrela, produkzio-maila izugarri hazteaz gain, banaketa-prozesuan dagoen lorearen bizialdia ere luzatu egiten da eta ontziratzerakoan nahiz zabaltzerakoan loreari kalte egiteko zegoen arriskua ere izugarri murrizten da. Merkatuan lore hauen egungo produkzioa urteko hainbat milioitakoa da eta, horregatik, horrelako makinak etorkizunean beste lore mota askotara ere hedatu daitezke.

mekanikoki eraginez; eta CNCdun biraketa mekanikoko eta blokeo hidraulikoko 9 estazioko banalerro horizontala. Irtenbide horrek pertsonari tresnak eta lanabesak errazago hartzeko aukera emango dio, horrela, egungo transferretako zutikako banalerroa gaindituz.

Instalazio horrek, gainera, zigilatze makina bat eta manipulatzeko beste bat izango ditu, aipatu ditugun bi makina horien kargatze eta deskargatze-lanak egiteko da, eta 30 minutuko autonomia duen sarrerako zinta bat ere izango du. Ezkerreko irudian, Transfer makina, ULMA iritsi berria.



Txaro Arteaga

Emakunde,
Emakumearen Euskal
Erakundearen
zuzendaria

*Txaro Arteagak 59 urte ditu eta, idazkari-ikaske-
tak egin zituen arren, bere laneko jardunbidea
irratitari eta bikoizketari lotuta egon da denbora
luzean. Emakundeko zuzendari den aldetik, gaur
egun gizon-emakumeen arteko berdintasuna
zein egoeratan dagoen azaldu digu, gaurkotasan
handiko beste gai batzuk jorratzearekin batera.*

"Berdintasunaren aldeko lege berria gizarte osoarentzat izango da onuragarria"

Emakunde duela 15 urte sortu zen, 1988an. Zer-nolako iritzia duzu urte horietan egindako lanaz? Gizon-emakumeek gizartean duten desberdintasunaren inguruko kezka politikoa kontu berria dugu. Sexu-berdintasunerako politikak bultzatzeko organismo bat sortzeak Nazio Batuen Erakundeak mundu-mailako biltzarren bidez bultzatutako joera bati erantzuten zion. Biltzar horietan erakunde publikoek arazo honetan esku hartu beharra azpimarratzen zen. EMAKUNDE sortu zenean, hutsetik hasi ginen, eta garai hartan ez zegoen gizon-emakumeen arteko berdintasunerako politikarik, ez gai honetan ziharduen egitura edo aditurik, eta gizartean ere ez zegoen gai honen aldeko jarrera zabalik.

Azken urte hauetan administrazio-egitura batzuk sortu ditugu egoeraren gaineko azterketa zorrotza eginenez, eta datu objektiboak eta esperientzia alderatuak oinarritzat hartuta, esku hartzeko planak sistematikoki jorratu ahal izateko.

Horrek guztiak esperientzia eta aurrerapauso handiak ekarri ditu. Berdintasunaren aldeko plan, programa eta jarduerak abiatzea, hala-koak gauzatzeko egiturak osatzea, erakundeen arteko eta erakundeen barruko lankidetzeta eta koordinazioa bideratzeko tresna egonkorak sortzea eta politika horiek guztiak gauzatzeko pertsonak trebatzea ezinbestekoa izan da gizon-emakumeen arteko berdintasunaren gaia agenda politikoan sartzeko, eta gaur egun Gizon-emakumeen arteko

Berdintasunerako Legea onartzeko erronkari heltzeko moduan egoteko. **Zergatik iritzi zaio beharrezkoa gizon-emakumeen arteko berdintasuna bultzatzeko lege bat onartzeari? Nori lagunduko dio lege horrek?** Azken urteotan aurrerapenik egon den arren, estatistikek erakusten dutenez Europako gizarte guztietan emakumeek desberdintasun-egoera nabarmena bizi dute gizonen aldean bizitzeko alderdi



**Mende oso bat
ez da aski izango**

benetako

berdintasuna lortzeko



askotan, eta horrek oztopatu egiten du emakumeei dagozkien herritartasun-eskubideak gauzatzeko.

Gure lege berria onuragarria izango da gizarte osoarentzat. Batetik, zuzenean, desberdintasunaren ondorioak modu larrienean jasaten dituzten pertsonen (emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak, emakume langabeak, seme-alabak bai baina haien aitaren laguntzarik ez duten emakumeak, sexu arrazoiengatik baztertuta daudenak...) babesa eta laguntza emateko neurriak hartuko direlako. Bestetik, zeharka, enpleguan, hezkuntzan, hedabideetan, erabakitze-guneetan, etxeko lanak eta lantokiko lana banatzeko garaian... berdintasun handiagoa izateko baldintzak bultzatu ditugulako, eta administrazioak bultzatutako programetan gizonen beharren parean emakumeenak ere aintzatzat hartzeko oinarriak ezarri ditugulako.

Zure ustez, zenbat denbora beharko da Emakunde eta antzeko erakundeek izateko arrazoirik ez edukitzeko, beren helburu guzti-guztiak lortu dituztelako?

NBEren arabera, mende oso bat ez da aski izango benetako berdintasuna lortzeko eta, egia esan, datuek ez digute oso egoera baikorra erakusten. Baina egia da, halaber, orain behintzat arazoak jabetzen garela, erakundeek geroz eta konpromiso handiagoa dutela eta gizartean ere geroz eta kezka handiagoa dagoela gai honen inguruan, eta ondo zehaztutako helburuak eta estrategia garbiak ditugu, gainera. Bidea zehaztu dugu, orain bide hori egitea dagokigu.

Emakumeen aurkako tratu txarrik puri-purian daude, zoritxarrez. Zergatik daude hainbeste tratu txar? Zeri zor zaio hori, gure gizartean errotutako maxismoari, kultura alorreko atzerapenari...? Emakumeen aurkako indarkeriak desberdintasunaren oinarritutako gizarte-ordena bat eta gizonezkoen agindutara dagoen sistema bat ditu oinarritzat. Sistema

eta ordena horietan pertsona bakoitzari egiteko bat egokitzen zaio bere sexuaren arabera, eta emakumeak gizonen mendean jartzen dira, haiek gaitzestearekin batera. Horregatik, arazoa konpontzeko aurrerapausoak egin nahi baditugu, botere-harremanak aldatzen ahalegindu behar dugu, historian zehar desorekatuak izan baitira harreman horiek, eta berdintasunaren oinarritutako harremanak sortu behar ditugu. Zorionez, emakumeen aurkako indarkeriak eremu pribatua gaintu du eta arazo publikoa bihurtu da, eta gizartea ez dago horrelakorik onartzeko prest.

Oraindik oso emakume gutxi daude erabakitzeguneetan


Jende gehienak uste du emakumeen laneko egoera nabarmen hobetu dela azken urteotan, baina ba al dago hain baikor izateko arrazoirik? Betidanik gizonezkoek izan dituzten lanpostuetan dagoen emakume kopurua handituz doa pixkana-pixkana. Zuzenbidea, medikuntza, politika eta hedabideak horien eredu ditugu, besteak beste, bai eta enpresetako pertsonalburuak edo kalitate-kontrolako arduradunak, horietan badago emakumerik, baina hala ere, emakume gutxi dago oraindik ekonomia alorreko erabakitzeguneetan. Lanmerkatuan bereizketa da nagusi bai horizontalean bai bertikalean, eta emakumeen langabezia-tasak gizonezkoena baino bi aldiz handiagoa izaten jarraitzen du, biztanleriaren alor guztietan. Kontuan izan beharreko beste datu bat hauxe dugu: emakume askok ez dutela beren lana uzten familia eratzeko garaian.

Kooperatiben sistemak parte-

hartzea eta berdintasuna ditu oinarritzat, besteak beste. Zure ustez, era horretako lan-antolamendua onuragarria al da emakumeentzat? Nire ustez, bai kooperatiben sisteman, oro har, bai ekoizpen-sistema osoan, egiteko dago beren baitan duten sexuगतिको desberdintasunaren gaineko azterketa sakona, eta lantokiko lana antolatzeko eredu berri bati ez diote heldu oraindik. Gainera, horixe da astindu beharreko alderdietako bat lana, familia eta norberaren espazioa uztartzeko aukera ematen duen gizartea lortzeko, guztia ere inolako desabantailarik gabe, ez emakumeentzat eta ezta gizonentzat ere.

Bukatzeko, Txaro, emakume langileei mezu bat bidaltzeko eskatu nahi dizugu, kooperatibako emakumeei bereziki, eta ULMA taldekoei zehazkiago.

Emakumeek mezuak baino gehiago konponbideak behar dituzte aldaketa sakoneko garai hauetan sortzen diren arazoei aurre egiteko. Baina konponbide horiek askotan ez daude beren esku. Halere, emakume bakoitzak, dagoen tokitik, bere ingurunetik, guztiok, gizon nahiz emakume, aurrera egiteko behar ditugun urrats txikiak egiten lagundu dezake.



ULMA Taldeko Berrikuntza eta Garapen

Urrutxu Proiektua Oñatiko Unibertsitate eta Teknologia eta Garapen Zentroa eta ULMA Handling Systems

ULMA Taldearen Sustapen Politikak zehaztutako esparru orokorraren barnean eta OUTHSAk (Oñati Unibertsitate eta Teknologi Hiri S.A.) makroproiektuaren baitan sartzen da URRUTXU Proiektua; gutxi barru jarriko da martxan eta, gure ustez, azpiegiturari dagokionez, proiektuaren zutabe garrantzitsuenak ULMA Taldeko Berrikuntza eta Garapen Zentroa eta ULMA Handling Systems negoziatorako lantegi berri baten eraikuntza dira.



ULMA Handling Systems negozioaren lantegi berriaren ikuspegia. Urrutxun kokatuko da.

┆
*Oñatiko Unibertsitate
eta Teknologia Hiria
gure inguruan
aberastasuna sortzeko
etorkizuna begira
egin dugun
apustua da*
┆

ULMA TALDEAREN SUSTAPEN POLITIKA

Jada jakingo duzue, ULMA Taldearen 2001-2005 Plan Estrategikoaren berrikuspenean, Politika Orokorretan **Sustapen Politika** barne hartzea erabaki zen. Politika hori ULMA Taldeak inguruan enplegua eta aberastasuna sortzeko konpromisoaren emaitza da eta kooperatiba berrien bidez bidera daitezkeen enpresa-sustapen berrien garapenean modu aktiboa eta planifikatua parte hartzeko nahiari erantzuteko sortu da.

Hasteko, Taldean enpresa-sustapenerako prozesua errazteko eta bultzatzeko asmoz, bi jarduketa-ardatz nagusi ezarri ziren: Negozioetako Enpresa Sustapenerako Planetarako baliabideak eskaintzea eta babestea, ULMA Taldearen sustapenerako ardatz nagusi gisa, eta negozio berrien edo horien barneko jarduera berrien sustapenean jarrera aktiboa izatea. Une hartan, Sustapen Politikaren atxekipenak, 2002-2005 Plan Estrategikoaren baitan Enpresa Sustapenerako estrategia korporatibo bat martxan jartzea ekarri zuen eta, beranduago, horren gain bi jarduketa-ildo aktibatu ziren:

- ❑ **Negozio edo jarduera berriei buruzko ideiak sortzeko prozesua.** 2002. urtean garatu zen eta Taldearen baitan 69 ideia berri sortu ziren.
- ❑ **Baliabideen antolaketa.** Garatu ahal izango ditugun sustapen-jarduerak hiru baliabide-motek baldintzatuko dituzte: eskuragarri ditugun finantza-baliabideen bolumenak, pertsona lehiatsuek (promozio berrietarako pertsona egokiak hartzea funtsezkoa izango da) eta azpiegitura fisikoak.

┆
*ULMAk baliabideak eta baldintzak
eskainiko dizkie Taldearen barnean
sustapen-proiektuak planteatzen
dituzten eta kezka, ideiak eta espi-
ritu lehiatsua duten pertsona guztiei,
sustapenerako bide garrantzitsua eta
enpresa eta pertsonak garatzeko
ezinbestekoa baita hori*
┆

Zentroko lanak hasi dira

Hiriko lehenengo fasea da eta ULMA Taldeko Berrikuntza negozioren instalazio berriak hartuko ditu

Finantza Baliabideei erantzuteko **Sustapen Fondo** bat onartu zen eta fondo horrek, nagusiki, Taldearen FEPCetatik (eskuragarri dauden FEPCen urteko % 27) eta ULMA Taldeko negozio guztien urteko ekarpenetatik –salmenta-kopuruen % 0,08– eskuratzen du dirua. Gainera, finantzaketarako barneko mekanismo horietara jotzeaz gain, MCC Fundazioko fondoetara eta Erakunde Publikoetako fondoetara ere jo dezakegu.

ULMA TALDEKO BERRIKUNTZA ETA GARAPEN ZENTROA

Sustapen berrietarako **Azpiegitura Fisikorako** erantzuna (finkatze-fasera arte) ULMA Taldeko Berrikuntza eta Garapen Zentroaren Proiektuan planteatuta dago eta proiektu honen helburu nagusia ULMAri Teknologia Zentroak, Sustapen Berriak, Prestakuntza Zentroa eta Departamentu Zentralak ezartzeko azpiegitura eskaintzea da, berrikuntza eta sustapena bultzatuko dituen ingurua eratuz. Proiektua gutxi barru jarriko da martxan eta URRUTXUko mendi-hegalean kokatuko da; Oñatiko Udalak eta ULMA Taldeak hasierako izaeraz sustatutako Oñatiko Unibertsitate eta Teknologia Hiria hasierako elementua da. Proiektu honen helburua goi-mailako teknologiako enpresen garapena bultzatzea da, hala, etorkizunari begira Oñati ingurua bultzatzeko eta balio erantsi handiko enplegu-tipologia sortzeko; horretarako, **ULMA Taldearen Berrikuntza eta Garapen Zentroa** eta **ULMA Handling Systems negoziarako lantegi berri bat eraikiko dira bertan eta azken hori ere** berehala hasiko dira eraikitzen.

ULMA Taldeko Berrikuntza eta Garapen Zentroaren alderdi batzuk zehazteko, lehenengo fasean ondoko beharrei erantzungo diela esan beharra dago:

- ULMA Packaging Technological Center (UPTC)** lantegiaren kokapen finkoa.
- Sustapen Berrien** kokapena (Taldearen baliabide gisa),
- ULMA Taldearen Prestakuntza Zentroaren** kokapena,
- Departamentu Nagusien** kokapena,
- Azpiegitura Komunaren** kokapena,

ULMA Taldearen Berrikuntza eta Garapen Zentroaren azpiegiturak 3.000 m² egokituiko ditu zeregin horretarako eta beste 3.000 m² laborategietarako, bulego teknikoetarako etab.

Andoni Gartzia Urtaza Oñatiko alkatea

"Oñati, Unibertsitate eta Teknologia Hiria"

"Gauza batzuk ez dira kasualitate huttsaren ondorio, baizik eta jendearen ahaleginaren emaitza. Duela hiru urte pasa, oñatiar talde bat amets egiten hasi zen eta hurrengo urteetako Oñati nola-koa izango den imajinatzen hasi zen.



Gogoeta horien ondorioz 2001eko otsailean dokumentu bat eman zuten: *Oñati Unibertsitate eta Teknologia Hiri gisa sustatzeko Lankidetzara Publiko eta Pribaturako Proposamen Estrategikoa*. Faktore askok parte hartzen dute lurralde baten garapenean, baina gaur egun, epe luzera begira, garapenaren oinarria bertan bizi den jendeak berritzeko duen gaitasuna da. OUTHSAK bi tresna baliatzen ditu ideia hori aurrera eramateko: hirigintza eta enpresa-ekimena. Azpiegituren ikuspegitik eta erabil dezakegun kokapen fisikoa kontuan hartuta, 490.000 m² izango genituzke OUTHSAK Proiekturako (Unibertsitate eta Teknologia Hiri S.A.). Hasierako ideiak ondorengo alderdiak hartzen zituen kontuan: industrializazioan oinarritutako ekonomiatik ezagutzen oinarritutako ekonomiara igarotzean nola egokitu, enpresen bilakaera nola sustatu, ingurua, herria etab. Azterketa sakona egin ondoren, hori guztia artikulatu eta egituratu egin da, *hiri eraikitze*; nola parte har dezake herritarrek teknologian, nola sozializatu teknologia etab. Azken batean, baliabide endogenoen bitartez, herria eszenario berri baterantz proiektatzea da kontua. Proiektu hau Udalak zuzendu eta gidatu behar duela uste dugu. MU, Unibertsitateak eta enpresak osatutako binomioa biltzen duen erakundea dela kontuan hartuta, eta ULMA Taldea dira proiektu honen bultzatzaileak, OUTHSAK proposatzen duen plan orokorraren lehenengo fasean Urrutxu Proiektuarekin hasiko baikara (poligonora sartzeko biribilgunea, hilerriaren inguruko pasealeku publikoaren hobekuntza eta egokitzapena eta hiru partzelen urbanizazioa: UPTCren instalazioak, ULMA Handling Systems negozioren egoitza eta hirugarrena etorkizunean aplikatuko da). Arrakasta izatea amets bat poliki-poliki betetzea baldin bada, jarrai dezagun amets egiten. Beraz, jarrai dezagun aurrera, esparru publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren baitan lan eginez. Orain ekintzak egiteko garaia iritsi da eta aktiboak direnekin, hots, ULMA Taldearekin, guk ere aktibo izan nahi dugu, OUTHSAren lehenengo oinarria Urrutxu izan dadin".

zer deritzozu?

- Informatikariak hizketan -

Erabiltzaileei ematen diezuen zuzeneko laguntzan, zein dira Zein alderdi hobetu litezke, zuen iritziz?



Luis Aramburu

ULMA Agrícola-Construcción

“Erabiltzaileek beren kasa instalatzen dituzte aplikazioak”

Zuzeneko laguntza duten zentroak eta gainerako zentroak bereizi behar ditugu, Oñatin eta Madrilen nahiz Madrilen eragin-eremuan, erabiltzaileei lantokian bertan ematen baitzaie laguntza, eta gainerako ordezkarietan telefonoz eta aldiroko bisiten bidez egiten da hori. Halere, bada arazo komun bat, software-a erabiltzeko prestakuntza gabeziak eta ekipoen erabilera okerrak eragindako arazoa hain zuzen ere, erabiltzaileek batzuetan beren kasa instalatzen baitituzte zenbait aplikazio eta horrek era guztietako arazoak eragiten ditu. Hardware-ak sortutako ohiko matxurak eta software arruntarekin (Word, Excel etab.) gertatzen diren era askotako arazoak ditugu, halaber. Beste arazo bat komunikazio-entenei dagokiena da. Gehienetan gure enpresatik kanpo sortzen dira halakoak eta ezer gutxi egin dezakegu zerbitzua bere onera itzularazteko, telekomunikazio-operadoreari lehenbailehen konpontzeko eskatzea ez bada. Hobekuntzei dagokienez, langileak ikastaro bereziak prestatu behar ditugu (aurten zerbait egiteko asmoa dago horren inguruan), ekipoa berritu egin behar dira (horretan ari gara), erabiltzaileei ematen zaien laguntza hobetu egin behar da (tokian bertan, arazoetarako informatikaren bidez etab.), komunikazio-azpiegiturak hobetu behar dira (babes-kopiak eta banda-zabalera ziurtatuz) eta abar.



Tere Jauregi

ULMA Carretillas Elevadoras

“Ordezkaritza bakoitzean informatika alorrean prestakuntza duen pertsona batek egon beharko luke”

Arazoak ugariak eta era askotakoak izaten dira. Inprimagailuan papera trabatuta gelditzen dela, ordezkari-tzetako komunikazio-lineak ez dabil-tzala... Hori larria da guretzat, ERPri, posta elektronikari, intranetari eta abarri lotuta dauden ordezkari-tzak baititugu. Ofimatikaren inguruko galderak ere izaten ditugu, ERPren funtzionamenduari buruzkoak, ERPri eskatzen zaizkion funtzionaltasun berriei buruzkoak etab. Hardware-arekin ere (PCak, inprimagailuak, router-ak...) izaten ditugu arazoak, eta horri guztiari ordezkari-tzen urruntasuna gehitu behar zaio gure kasuan. Horrelako negoziotan langile gutxi aritzen gara beste negozio batzuen aldean, eta, hortaz, azken erabiltzaileei prestakuntza egokia eman beharko litzaieke ofimatikan, adibidez. Horrela errazago moldatuko liriteke beren kasa eta horrek lan gutxiago emango liguke. Hardware eguneratua (PCak, inprimagailuak...) izatea ere lagungarria da, arazoak murriztu egiten baitira horrela. Ordezkaritza urruti egoteak dakartzan arazoak konpontzeko, ordezkari-tza bakoitzean informatika-gaietan prestakuntza duen pertsona bat egotea komeniko litzateke.



Olatz Lazkano

ULMA Forja

“Inprimagailuek lan handiak ematen dituzte”

Arazo asko Windows mailako oinarri-zko ezagutzarik ez izatearen ondorioz edo erabiltzaileek zenbait tresna erabiltzen ez jakitearen ondorioz sortzen dira. Software eta hardware arazoak ere sortzen dira, hau da, programa batzuk arazoak ematen hasten dira, edo makina batzuetako osagaiak matxuratu egiten dira, edo inprimagailuak; inprimagailuek lan handiak ematen dituzte. Garrantzitsua izaten da konponbidea lehenbailehen ematea, izan ere, geroz eta mendetasun handiagoa dugu ordenagailuekin eta ordenagailurik gabe lan egitea ia ezinezkoa da gaur egun. Erabiltzailearen mailak eragina du, nire ustez, laguntza ematean, eta norberak zenbait gauza ikasi eta zerbait gertatzekotan nola jokatu jakiteko interesak ere bai. Nire ustez, erabiltzaileei irakatsi beharko litzaieke ordenagailua lan-tresna bat gehiago besterik ez dela, eta nola-baiteko maila eduki behar dela, bakoitzak duen lanaren arabera, hain zuzen.

maizen sortzen diren arazoak?



Aitor López de Sabando
ULMA Handling Systems

"Windows-ek eragindako akatsak dira arruntenak"

ULMA Handling Systems-en intranet bidezko tresna bat dugu informatika-akatsak erregistratu eta laguntza eskatzeko, baina, halere, oso zaila da zehaztea erabiltzaileei maizen sortzen zaizkien arazoak zein diren. Oro har, esan dezakegu Windows-ek eragindako akatsak izaten direla gehien konpondu behar izaten ditugunak. Gehienetan programak eragindako akats txikiak izaten dira, konpontzen errazak direnak, baina zenbaitetan hardware-ak berak eragiten ditu arazoak eta, orduan, konponbidea zailagoa izaten da eta laguntza eskatu behar izaten dugu kanpoan. Akats horietako gehienak erraz konpondu litezke erabiltzaileei prestakuntza berezia emanez. Horrek ez du esan nahi akatsik sortuko ez denik, baina, nire ustez, nabarmen murriztuko lirateke. Nolanahi ere, gure lana egiten dizkiguten eskaerei erantzutea da, eta gure esku dagoen horretan gogo onez laguntzea.



Josu Larrad
ULMA Hormigón Polímero

"Prestakuntza da inbertsiorik onena"

Gure arazo handiena presa izaten da. Erabiltzaileek askotan uste dute haien arazoa enpresa osoko arazo larriena dela eta dena bertan behera utzi beharra dagoela haiei konponbide azkarra emateko. Gehienetan, ordea, ezinezkoa izaten da, ez baitago behar adina baliabiderik. Niri dago-kidanez, laguntza emateaz gain baditut beste ardura batzuk, eta ondorioz arazoa larriagotu egiten da batzuetan, eta lehen-tasunak finkatu behar izaten ditut. Eta erantzuna emateko epea zorrotza bada, are zorrotzagoa da konponbidea aurkitze-ko epea, arazoa duen langilea geldirik badago. Gainera, aplikazio guztiak zehatz-mehatz erabiltzen jakiteko eskatzen digute batzuetan, eta hori ezinezkoa da. Gauzak hobeto egiteko bide bakarra, erabiltzaileak beren eguneroko lan-tresnaren aurrean seguru egotea da. Beren kasa moldatzeko gai sentitzea, eta sortzen zaizkien arazoei aurre egiteko gai izatea. Hori lortutakoan, laguntza emateko deiak behar-beharrez-koetara murrizten dira, eta erabiltzaileek erosoago lan egiten dute. Ordenagailuaren aurrean halako segurtasuna lortzeko, ordea, prestakuntza da bide bakarra. Askotan ez dakigu nondik atera denbora jendea prestatzeko, baina ikusita dago egin litekeen inbertsio onenetakoa horixe dela, prestakuntzan emandako ordu bakoitzeko, zalantzetan, zuzenketan eta arazoetan murgilduta emandako ordu asko aurrezten baitira.



Julen Barinaga
ULMA Packaging

"Hardware-an inbertitu beharko litzateke"

Galdera alderantziz egin beharko litzateke, beharbada, alegia, zein dira gutxien gertatzen diren arazoak? Izan ere, denetik dugu. 250 ordenagailutik gora, 80 eramangarri, ordezkariak, zerbitzariak, telefono-zentrala, telefonia finkoa eta sakelakoa, inprimagailuak, etab. Horiez guztiez arduratzen gara. Eta arazo arruntenak hauek dira: ordenagailua ez dela pizten, traba-tu egiten dela, pantaila urdinez agertzen dela, ez duela inprimatzen... Ekipoen "adinari" edota software akatsei zor zaizkien horrelako akatsez gain, elikatze-iturriekin arazo ugari izaten ditugu gure negozioan. Badakit oraingoa ez dela garai onena dirua eskatzeko, baina konponbide egokiena ekipoak berritzea izango litzateke, ekipoak zaharkituta gelditu baitaitezke erabilitako hardware-aren ondorioz. Era berean, oraingo erabiltzaileen prestakuntza hobetzea komeni da, eta lanean hasten diren berriei prestakuntza egokia ematea.



"ULMAN lortu duguna baloratzen jakin behar dugu, gauza handia baita"

Javier Galdos

Oñatiarra jaiotzez, Javier Galdosek ondo ezagutzen du ULMAren historia eta, zehazki, ULMA Construcción negozioa, betidanik bertan lan egin baitu. Gaur egun, soinean 55 urte eta eskarmentu handia dituela, elkarrizketa honetan bizipen horietako batzuen berri eman digu.

Zenbat urte ULMAN, Javier?
Hogeita hamabost urte, bizitza profesional osoa ia.

ULMAN hainbeste urtez lanean aritzean hainbat erronkari egin behar izango zenion aurre... Konta iezaguzu, zein izan da zure ibilbide profesionala ULMAN? Egia esan eraikuntzaren esparruarekin lotuta egon da beti, eta eraikuntzaren esparruko aplikazio eta muntaien alderdi teknikoarekin; hala ere, hirurogeita hamarrek hamarkadan, merkatuak hartutako joeraren eta baliabideen gabeziaren ondorioz, merkataritzako zereginak ere bete genituen.

ALFRE muntaietarako enpresa, ULMAren filiala, martxan jar-

tzea, une garrantzitsua izan zen... Nolakoak izan ziren hasierako garai haiek? ALFRE filiala ULMAN aurretik zegoen muntaien departamentua ordezteko sortu zen. Merkatuko erronka berriei erantzun ahal izateko sortu genuen. Erabaki egokia izan zen eta proiektio garrantzitsua izan du, batez ere azkeneko hamarkadan. Azpimarratzekoa da gaur egun, batez beste 650 langile baino gehiago kudeatzen ditugula nazio mailan modu iraunkorrean.

ALFREren mailako enpresa bat kudeatzea ez zen erraza izango, jardueraren arriskua beti hortxe baitago... Seguratasunak lehentasuna izan al du beste faktore

batzuen aurrean? ALFRE kudeatzea ez da beste arlo batzuk baino zailagoa, baina badu zuk azpimarratzen duzun ezaugarri iraunkor hori, "Seguratasuna". Eraikuntzan arrisku handien duen jarduera da honakoa. Lehenengo urteetan, "G-Aldamioarekin" lan egiten zenean, seguratasunaren esparrua ez zen ia kontuan hartzen. Gaur egungo egoera askoz ere hobea da, seguratasun-sistema kolektiboak garatu ditugu eta muntaien prozeduretan txertatu ditugu. Zinez, "SEGURTASUNA" da gure erakundearen lema nagusia. Nazio-mailan lehenengo enpresa gara, 1997. urtean SEGURTASUNARI EMANDAKO SARI NAZIONALA (ALDAMIO TUBULARREN MUNTATZAILEAREN SEGURTASUNA) esku-

ratu genuen egindako ikerketa eta aplikazio-lanagatik.

Urte hauei buruzko zein balantze egiten duzu? Ahaleginak eta sakrifizioak merezi izan al du?

Ezin dugu sakrifizioz hitz egin, enpresa honetan guztiok eskaini baititugu gure lana eta denbora hala egokitu izan zaigunean.

Laurogeiko hamarkadan tentsio handiko egoerak bizi izan genituen, baina guztion ahaleginari, ardurari eta elkartasunari esker gainditu ahal izan genituen. Niretzat, balantzea guztiz positiboa da, esparru profesionalean nahiz gizatiarrean. Gure erakundeko kide asko ezagutzeko aukera izan dut.

Nola ikusten duzu ULMA taldearen etorkizuna eta, zehazki, ULMA Construcción negozioarena? Arazorik ez dagoela esatea ezinezkoa da, baina niretzat ULMA Taldea MCCren barnean kohesio handiena duena da, eta identifikazio-maila nahiz taldeko sentimendua oso handiak dira.

Giza kapital horrek, gaur egun dau den proiektuekin batera, ULMA Taldearen egonkortasuna, sendotzea eta hedapena bermatzen dute. ULMA Construcción negozioari dagokionez, etorkizunean ere ULMA Taldearen euskarri nagusia izango dela argi dago. Erakunde bizia da eta garatzen ari da etengabe.

Denborak ematen duen distantziazatik begiratuta eta ULMA urte asko egin dituzula kontuan hartuta, hainbat pertsonak utzitako lorratzaz jabetuko zinen. Zein gogoratu nahiko zenuke bereziki? Urte asko eta pertsona asko dira eta, zalantzarik gabe, une atseginagoak eta nahasiagoak bizi

ULMA Taldea MCCren barnean

kohesio handiena duena da"

izan ditut pertsona horietako askorekin. Baina pertsona horien guztien artean Jose Antonio Zubia gogoratu nahiko nuke, petroliontzi baten tankeetan aldarnioak ezartzen ari gine-la lan-istripuan hildako lankidea.

Azkenik, zure esperientzian eta lanean oinarrituta, Javier... Zein mezu igorri nahi diezu ULMAko belaunaldi berriei? Ez naiz nor inori mezurik emateko, baina nire

iritzi pertsonala adieraziko dut. Gure kooperatiba-sistema honetan erruz sinesten dut, gure erakundeak dituen bertuteek pertsonak zuzendutako gizartean dauden alderdi negatiboak gainditzen dituzte.

Daukaguna baloratzeko eskatuko nieke, gauza handia baita, eta gure eredu nazio-mailan nahiz nazioartean kontrastatzeko, parte hartzeko, kritikoak izateko, baina "kritika konstruktiboak" egiteko.



Irudian, Javier Galdos Eduardo Chillidaren eskuinean, Haize Orrazian, 1977. urtean.



Erretiroa hartu dutenekin hizketan

parte-hartzaileak

- > Felix Ayastui
- > Juanito Osa
- > Jesus Lazkanoiturburu
- > Amparo Viciola
- > Luis Mugarza
- > Alfredo Corrales

Gutxi barru, urriaren 31n, erretiroa hartu dutenei eskainitako omenaldia egingo dugula kontuan hartuz, horietako sei elkartu nahi izan ditugu nola bizi diren, orain arteko kezka zein diren, orain ULMArekin duten harremana nola ikusten duten eta abarri buruz hitz egiteko.

Ziurrenik, Begira aldizkari hau argitaratzen denerako erretiroa hartutakoei eskainitako omenaldia egina izango den arren, nola sentitzen zarete enpresarekin eta bertan lankide izandakoekin berriro elkartuko zaretela jakinda? Eta, bestalde, hurrengo urte-erako omenaldiaren programa hobetzeko iradokizunen bat al duzue?

> **A. VICIOLA:** Oso ondo dago, bestela ez baititugu garai bateko lankideak ikusten eta horrela berriro ikusteko aukera izango dugu. Niretzat lehenengo aldia izango da,

duela bi urte hartu bainuen erretiroa. Omenaldiari dagokionez, hildakoak gogoratzeko meza bat eskaini beharko litzatekeela uste dut, horiek ere enpresan parte hartu baitute.

> **A. CORRALES:** Hiru urtean behin lankideekin elkartu ahal izatea oso atsegina da niretzat. Gonbidapena oso gustuko dut, oso maitekorra da. Hildako lankideak gogoratzeko proposamenarekin bat nator. Nik neuk duela hiru urte mikrofonoa hartu nuen eta honela esan nuen: "erretiroa hartu baino lehen mundu hau utzi duten lankideak gogoratu nahiko nitzuke bereziki".

> **L. MUGARZA:** Niretzat lehenengo aldia izango da eta ilusio handia dut urte askotan elkarren ondoan borrokan aritu garen lankideak ikusteko. Kooperatibaren bilakaera ikusteko lantegira egiten den bisita oso ondo dago.

> **J. LAZKANO;** Duela hiru urte, lehen aldiz joan nintzenean, ekitaldi ederra izan zen. Gainera, honelako ekitaldiak hiru urtetik behin egitea oso egokia dela uste dut. Erretiratutako gehienok asko esker-tzen dugu ekitaldi hau, izan ere, lankideekin eta kooperatibarekin harremana mantentzeko bide bakarra

baita. Hildako lankideak gogoratze-ko meza egitearekin ere ados nago.

> **J. OSA:** Ekitaldi interesgarria iruditzen zait. Ni bigarren aldiz joango naiz eta lantegia bisitatzeko eta izandako bilakaera ikusteko aukera paregabea da. Oro har, ekitaldia ondo dagoela uste dut.

> **F. AYASTUI:** Ilusio handia dut guztiekin elkartzeko, ez bainaiz Oñatin bizi eta ez dut giroa hurbile-rik bizitzeko aukera... Lankide ohiak ere ez ditut ikusten eta, horregatik, omenaldi-ekitaldiak poz handia ematen dit. Nik ere hildakoak nolabait gogoratzeko zerbait egin behar-ko litzatekeela uste dut.

Egin dezagun balantzea. Erretiroa hartu zenutenetik zuen bizimodu-asko aldatu al da? Bete al dira aurrez zenituzten itxaropenak?

> **A. VICIOLA:** Egia esan nire bizimodua ez da asko aldatu. Lehen egi-ten nituen gauza berak egiten ditut orain ere, etxean etab. Orain lasaia-go nago, hori bai, eta denbora gehiago dut. Egunero paseatzera joaten naiz eta gimnastikako eskola-tara ere joaten naiz; bestalde, laguntza eskaintzeko hainbat zeregi-netan ere parte hartzen dut: Argentinara bidaltzeko arropa jasotzen dugu, ospitaleko gaixoak bisitatzeko ditugu etab. Solfeo ikasten ere aritu naiz. Denbora falta zaidala iruditzen zait...



“Omenaldiaren egunean hildakoak gogoratu beharko lirateke”

A. Viciola



> **A. CORRALES:** Egiten ditudan jarduera guztiak idatziz jasotzea atsegin dut, poesia idazten dut eta nire bizitzako pasadizoak eta baita ULMA enpresan lan egindako urte-takoak ere idatzita ditut. Idatzi eta bidaiatu egiten dut, ahal beste. Arratsaldeetan partida jolastera joaten naiz eta igerilekura ere joaten naiz.

> **L. MUGARZA:** Nire itxaropenak bete dira. Aldaketa handia izan da, baina positiboa. Egun osoa hartua dut eta oraindik ez ditut nahi nituen gauza guztiak egin.

> **J. LAZKANO:** Duela 5 urte hartu nuen erretiroa eta bizitza asko aldatu zait. Lehen ez nuen ezer egiteko astirik eta orain ere gauza bera gertatzen zait. Egun asko motz gelditzen zaizkit. Normalean etxean edo tabernan ez ditut ordu asko sartzen, baina gauza asko egiten ditut, oso goiz jaikitzen bainaiz.

> **J. OSA:** Egun osoa hartua dut. Goizeko zazpi eta erdiak aldera jai-


kitzen naiz eta baratzearen eta mendiaren artean egun osoa ematen dut.

> **F. AYASTUI:** Nik ere gero eta denbora gutxiago dut. Lantegi txiki bat dut eta egunean hainbat ordu hantxe igarotzen ditut. Gainerakoa emaztearekin igarotzen dut, etxean apur bat laguntzen etab. Duela sei urte hartu nuen erretiroa eta ez dakit aspertzea zer den.

Harremana al duzue ULMArekin? Erretiroa hartzean kooperatibarekiko harremana eten egiten dela uste al duzue? Nola ikusten duzue orain ULMAren egoera?

> **F. AYASTUI:** ULMA ondo ikusten dut, eta aurrerantzean ere halaxe jarraitzea nahi nuke... nire bi semek hantxe lan egiten baitute. Harremana nahiko urria da. Hurbileko lankideekin afaritxoren bat egiten dugu noizean behin.

> **J. OSA:** Adiskideekin bai, afariak



egiten ditugu eta. Noizean behin lantegitik pasatzen naiz, baina... ULMA ondo ikusten dut, une hone-tan eraikitzen ari diren pabilioi berriak ikustea nahikoa da horretaz jabetzeko.

> **J. LAZKANO:** Lantegira noizean behin etortzen naizenean, bilakaera positiboa izan dela ikusten dut. Beharbada kanpoko jendeak guk baino hobeto ikusiko du lortutako guztia eta lortzen ari direna. Gainera, horrelaxe jarraitzea interesatzen zaigu, gure diruak hementxe baitaude. Inguruan ULMAri buruz entzuten diren zurrumurruak positiboak dira.

> **L. MUGARZA:** Nik, pertsonalki, ULMAri buruzko informazioa hurbi-letik ezagutzen dut, 3 seme baititut bertan lanean. Gainera, edozein aitzakia ona da lantegia bisitatzeko.

> **A. CORRALES:** Nik lankide asko-ekin nuen harremana erabat galdu dut, baina seme bat dut bertan lanean. Kanpoko jendearekin eta beste enpresa batzuetakoekin hitz egiten duzunean inbidia apur bat sumatzen da, erretiratuekin nola jokatzeko duen ikusita. Enpresa guztietan berdin jokatu beharko lukete.

> **A. VICIOLA:** Bi urte hauetan ez dut harreman handirik izan ULMArekin. Hala ere, kanpora irte-ten naizenean edo bidaiatzen ari

naizenean asko pozten naiz alda-mioak, euskarriak etab. ikusten ditu-danean. Batzuetan gauzak okertze-ko beldur apur bat sentitzen duzu, lana urritzeko beldurra. Uff... krisial-dirik ez izatea espero dut, ULMA-n gazte asko baitaude lanean. Gainera, albisteak entzutean badiru-di krisialdia dagoela, begiratu ale-maniarrak nola dauden, eta alema-niarrak horrela baldin badaude...

> **J. LAZKANO:** Alemaniarrak ULMA hartu behar lukete eredutzat... ULMA-n lana gutxitzen ari dela esaten denean nik oraindik ondo gaudela esaten dut, hasierako mailaren arabe-ra baitago guztia. ULMAren maila oso altua da eta, jakina, orain maila nor-maltzen ari da.

> **A. CORRALES:** ULMA Construcción negozioa ezin da erori. Merkatu bikaina du. Une batzuetan behera egingo du eta urte zailak izan-go ditu, baina ez da eroriko.

Kooperatiba erretiroa hartutako pertsonen arduratzen dela uste duzue? Eta orain ezagutzen duzuen ezagututa eta zuen espe-rientzia kontuan hartuta, zer eska-tuko zenikete kooperatibari edo Lagun-Arori?

> **J. LAZKANO:** Oro har, bagene-kien zer zegoen. Baina jendeak argi izan behar du zer dagoen, badaez-pada... Erretiroa hartzen duzunean

dena ondo datorkizu, nahiz eta teo-rian, gero eta gauza gutxiago behar ditugun... Nire ustez, eguneroko bizitzan beharrak nahiko parekatuta daude, zure lanbide profesionalean zein kategorian izan duzun alde batera utziz.

> **L. MUGARZA:** Lagun-Arok ez du pentsioa KPIren arabera igotzen eta horrek ondorioak dakar urteekin.

> **A. VICIOLA:** Hori da. Izan ere, urte asko bizitzeko zortea izanez gero, pentsioaren igoera ez dator bat bizi-mailarekin eta poliki-poliki galtzen joaten gara. Beste gauza bat ere eskatuko nioke LAGUN-ARORI: zergatik ez dituzte aparteko pagak ordaintzen? Gabonetan eta uztailean besteek jasotzen dutena-ren erdia baino ez duzu jasotzen. Erretiroa hartu dugunon beharrei dagokienez, garrantzitsuak direla uste dut, orain egun osoa etxean egoten bazara berogailua gehiago pizten baituzu, adibidez.

> **L. MUGARZA:** Aparteko pagan kontua urteko pezetak 14 artean zatituz egiten dute.

> **A. CORRALES:** Nik berdin kobratzen dut Gizarte Segurantzatik eta Lagun-Arotik; orduan, zergatik ez ditu aparteko pagak ordaintzen? Gainera, Lagun-Arok urtero igotzen duen kopurua Gizarte Segurantzarena baino txi-





“Oñatira etortzen naizenean, ULMAren bilakaera positiboa dela ikusten dut”

J. Lazkanoiturburu



kiagoa da. Bestalde, Gizarte Segurantzak, KPI aurreikusitakoa baino gehiago igotzen bada, aldea ordaintzen du eta Lagun-Arok ez.

> **F. AYASTUI:** Oro har, kexatzeko arrazoirik ez dugula esango nuke. Esate baterako, INSERSOren bidaiak ditugu eta nahiko merkeak direla iruditzen zait. Azken batean, arazo bakarra urteak aurrera doazela da...

Osasuna, familia, maitasuna etab. Erretiroa iristean gai horiek beste modu batean ikusten direla dirudi..., nola planteatzen dituzue bizitzako etapa honetan?

> **A. VICIOLA:** Hori guztia etxeko bizimoduaren araberakoa da. Nik, adibidez, bakarrik bizi naizenez, bakardadea sentitzen dut batzuetan. Aurrera zoazela ikusten duzu eta egunen batean Ospitalera joan beharko duzula pentsatzen duzu. Osasunari dagokionez, soinketa egiten dut, paseatu egiten dut, janaria ere zaintzen dut.

> **L. MUGARZA:** Ariketa fisikoak egiten saiatzen naiz, paseatu egiten

dut, jaterakoan ere apur bat zaintzen naiz etab. Familiari dagokionez, egoera berri honetara egokitu beharra dugu, orain ordu asko egiten baititugu etxean.

> **J. LAZKANO:** Erretiroa hartzeko prestatzeko hitzaldietan, osasuna zaintzearen kontua zen nagusi. Horrek esan nahi du pentsioari buruz asko hitz egiten dela, baina azkenean garrantzitsuena osasuna dela.

> **J. OSA:** Erretiroa hartu aurretik urtero osasun-azterketa bat egiten nuen eta orain ere egiten dut.

> **F. AYASTUI:** Osasunari dagokionez, nahiko ondo nago. Urtero osasun-azterketa egiten dut. Janariarekin ere ez dut arazorik, ez baitut asko jaten. Eta familiari dagokionez, berriz, orain aspiradora pasatzen dut eta harrikoa egiten dut noizean behin. Emazteari apur bat laguntzen diot.

Azkenik, zein mezu igorriko zeniekete erretiroa hartzeko adinean dauden ULMA Taldeko lan-kideei?

> **A. VICIOLA:** Eguna betetzeko jarduerak prestatzeko esango nieke, eguneko ordu gehienak betetzeko, eta telebista gutxi ikusteko, oso programa txarrak daude eta.

> **A. CORRALES:** Erretiroa hartzeko adinean dauden "gazteei" burua prestatzeko esango nieke, poliki-poliki erretiroa hartuko dutela barneratzen joateko, iristen denean gozatu ahal izateko.

> **L. MUGARZA:** Beldurrik ez izateko esango nieke eta aurretiaz nola-baiteko plangintza egiteko.

> **J. OSA:** Beldurrik ez izateko. Beste bizitza bat da, baina aurrekoa baino hobea.

> **J. LAZKANO:** Erretiroa hartzeak ez dituela beldurtu behar, erretiroa hartzeagatik zahartu egiten garela edo ezertarako balio ez dugula pentsatzea gaizki dago... Gainera, gazteei leku egitea bizitzako lehea da, etorkizuna bermatzeko. Amaitzeko, gehienak gustura gaudela esango nuke, eta horrek zerbait esan nahiko du...



> Amparo Viciola

“Eguna betetzeko jarduerak prestatzeko esango nieke”



> Alfredo Corrales

“ULMAko bizimoduari buruz idaztea atsegin dut, eta pasadizoak eta poesia ere idazten dut”

MCCko Kooperatiben arteko Fondoak: proiektuak finantzatzeko kooperatiben "Bankua"

FCI (Elkar Lankidetzako Fondo Zentrala) eta FEPI (Hezkuntzako eta Kooperatiben Sustapenerako Fondoa) Fondoak MCC barneko elkartasunaren adierazpen nagusia dira, eta ikuspegi bateratu batetik jardutean izan dezakegun gaitasuna erakusten dute.

2003ko ekitaldirako, MCCk 10,6 milioi euro ditu (1.764 milioi pezeta) diru laguntzen bidez banatzeko eta beste 29,2 milioi euro (6.622 milioi pezeta) inbertsioak egiteko.

Diru hori bi iturritatik iritsi da:


- FEPI (Hezkuntzako eta Kooperatiben Sustapenerako Fondoa), MCCren 2. Kongresuan onartutakoa.
- FCI (Elkar Lankidetzako Fondo Zentrala), 3. Kongresuan onartutakoa.

Fondo hauek bi erakundek kudeatzen dituzte:

- MCC Inversiones S.P.E. S. Coop. Enpresen Sustapenerako Sozietateak, kooperatibetan inbertsioaren bidetik eskaintzen diren laguntza guztiei erantzuteko helburua duenak.
- MCC Fundazioa: irabazi asmorik gabeko sozietatea da eta diru laguntzen bidez kooperatibei ematen zaizkien laguntza guztiak bideratzen ditu.

Nondik irtetzen da FEPIrako dirua?

Kooperatiba bakoitzeko FEPCetatik irtetzen da. Kooperatiba bakoitzak ekitaldiko emaitzen % 10 zuzendu behar du FEPCera (zenbait kasutan % 5era murrizten da kopuru hori). MCCren arautegiaren arabera, FEPCaren % 20 FEPIra igarotzen da, gero MCCk banatu ahal izateko. ULMAn antzeko zerbitu egiten da,



FEPC gehiena Taldeak banatzen bait du. Euskadiko Kutxak –kasu berezia da– bere FEPCaren % 50 zuzentzen du FEPIra. Aurten egindako azkeneko Kongresuan, Mondragon Unibertsitatearen garapen-plana finantzatzeko asmoz, 5 urtetan FEPCtik % 10eko ekarpen osagarria egitea erabaki da. Beraz, FEPIren finantzaketaren eske-ma honakoa litzateke:

Egoera arrunta	
<input type="checkbox"/> Euskadiko Kutxa	FEPCaren % 50
<input type="checkbox"/> Kooperatibak	FEPCaren % 20
Datozen 5 urteetarako	
<input type="checkbox"/> Euskadiko Kutxa	FEPCaren % 60
<input type="checkbox"/> Kooperatibak	FEPCaren % 30

Nola banatzen du MCCk FEPIa?

Irizpide orokor gisa, % 50 Hezkuntza Proiektuetarako zuzentzen du eta gainerako % 50 I+G proiektuetarako. Zehazki, 2003rako ondorengo banaketa aurreikusi da:

<input type="checkbox"/> Hezkuntza Zentroak:	3.938 mila euro
<input type="checkbox"/> Zientzia eta Teknologiako Plana:	1.000 mila euro
<input type="checkbox"/> Teknologia Zentroak:	1.420 mila euro
<input type="checkbox"/> Beste proiektu batzuk:	360 mila euro
Guztira:	6.718 mila euro

Kooperatibek fondo horien zati bat eskuratu dezakete diru laguntzak jasotzeko I+G proiektuak egiten dituzten heinean.

Nondik irteten da FCIrako dirua?

MCCrekin lotutako kooperatiba guztiek urtero beren emaitzen % 10ari dago-kion baliokidea FCIra zuzendu behar dute finantza-ekarpen gisa. Baliokidea diogu, zuzendutako kopurua ez baita kooperatiben emaitzetatik irteten. Emaizta kalkulua egiteko formula baino ez da, FCIn zenbat diru jartzen den zehazteko. Kooperatibarentzat inbertsio bat da eta, beraz, diru horren truk interesak jasotzen ditu. Euskadiko Kutxa erakunde berezia da eta, horregatik, emaitzen % 20 zuzentzen du. Kopuru horren % 70 diru laguntza gisa ematen du eta % 30 inbertsioetarako zuzentzen du (Kooperatibei zuzendutako Mailegu Linea). Banaketa-mota hori interesgarria da bi alderdientzat. FCI kooperatiben artean sortutako banku bat dela esan daiteke, proiektu zehatz batzuei laguntza finantzarioa emateko.

Zertarako erabiltzen da FCIn dirua?

Lehenago esan dugunez, Euskadiko Kutxak egiten duen ekarpenaren % 70 diru laguntzetarako zuzentzen da eta, beraz, diru hori kooperatibei diru laguntzak emateko erabiltzen da; laguntza horiek bi bide haueetatik zuzentzen dira:

1. Proiektuetarako diru laguntzak emanez.
2. Kooperatibek dituzten galerak % 20 arte konpentsatuz.

2003. urtean ondorengo banaketa planteatzen da:

<input type="checkbox"/> Sustapen-proiektuak	400 mila euro
<input type="checkbox"/> Internazionalizazioko proiektuak	1.000 mila euro
<input type="checkbox"/> Proiektu Korporatiboak	332 mila euro
<input type="checkbox"/> Galeren konpentsazioa	1.400 mila euro
<input type="checkbox"/> FEPIra sartzeko	750 mila euro

Beraz, jarduera berrien garapena edo atzerriko ezarpenak sustatzea da helburua, dagozkien bideragarritasun-proiektuak egiteko diru laguntzak emanez. Aurten FEPIra ekarpen berezi bat egitea aurreikusi da, MU proiektuari laguntzeko eta lehenago adierazi dugun plan bereziaren aplikazioaren aurretiazko urrats gisa.

Bestalde, kooperatibek eta Euskadiko Kutxak inbertsioak egiteko zuzendutako kopurua kooperatibak eta horien partaidetza-sozietateak finantzatzeko erabiltzen da, kapitalean egindako partaidetzen, maileguen eta abalen bidez.

2003. urterako fondoak honela erabiliko direla aurreikusi da:

<input type="checkbox"/> Jarduera berriak	11.500 mila euro
<input type="checkbox"/> Kanpoko ezarpenak	11.500 mila euro
<input type="checkbox"/> Zorpetzea agortuta duten kooperatibak	2.191 mila euro
<input type="checkbox"/> MCC Navarra	376 mila euro
<input type="checkbox"/> MCC Desarrollo	3.606 mila euro

Bi erakunde horiek, MCC Navarra eta MCC Desarrollo, fondoak dira eta fondo horietan, MCC korporazioaz gain, Gobernuak (Eusko Jaurilaritzak eta Nafarroako Gobernuak) eta beste finantza-erakunde batzuek ere hartzen dute parte; fondo horien helburua kooperatiben garapenera fondoak zuzentzea da. Beraz, MCC korporazioak kooperatibentzat eskainitako dirua bidertzeko tresna bat da.

Amaitzeko, aurtengo Kongresuan elkartasun-tresna berri bat onartu da eta, hala, kooperatiben emaitzen % 2 MCCko Fondo Global batera zuzenduko da (gure kasuan ULMA Taldeak egin beharreko birmoldaketa murriztuko du horrek), eta kooperatiben galerak % 50 arte konpentsatzeko erabiliko da diru hori (orain arte galeren konpentsazioa % 20 artekoa zen).

Jokin Ugarte

Finantza Zuzendaria. ULMA Taldea.

ULMAren ikuspegitik –fondo horien erabiltzaileetako bat izan baitaiteke–, fondo horiek, funtsean, kooperatiba baten galera % 50 arte konpentsatzeko aukera eskaintzen digutela uste dugu (Taldearen birmoldaketa aplikatu aurretik) eta, bestalde, baliabide propioak geureganatzeko aukera ere ematen digute. Kooperatibek kanpoko finantzazioa lortzeko mekanismoak ditugu (maileguak), baina sozietate anonimok baino zailtasun handiagoak ditugu baliabide propioak lortzeko. MCC Inversiones atalaren bidez, kooperatiba batek baliabide propioak eskura ditzake kapitalari egindako ekarpenen edo partaidetza berezien bidez. Hala, bada, kooperatibaren zorpetze-ratioa hobetzean, kanpoko finantzazioa lortzeko aukera handiagoa izango du.



ULMA Construcción negozioaren hastapenak

ULMA Construcción negozioaren jatorria hainbat pertsona lehiatsuk, 1957. urtean, ordu arte zituzten lanbideak utzi eta gaur egun gure Taldeko negoziarik oparoena den proiektu bat garatzeko jarri zuten ilusioan bilatu behar dugu.

Baina ULMAren espezializazio-sektoreak ez ziren hasieratik sortu. Enpresa guztietan bezala, garai hartan kasualitateen ondorioz sortzen joan ziren, unean-unean sortzen ziren beharretara egokitzeko.

Jesús Lizarralde maristak, Durango Arte eta Lanbide Eskolako irakasle eta ULMAko fundatzaileetako baten anaiak, aldamioren krokis bat ekarri zuen Estatu Batuetatik. Horiek egiteko San Andrés auzoko Conducciones y Derivados Condesa enpresari tutuak eskatu zizkioten eta horrela hasi ziren lehenengo aldamiok egiten, eskulanaren bidez. Garai hartan, Hijos de Juan de Garay enpresako soldatzaileek, lantegiko lana amaitzean, aldamiok muntatzen zituzten. Horrela hasi zen guztia.

ULMA kooperatiba 1961. urteko irailaren 8an sortu zen eta hasiera batean 35 bazkide ziren; kooperatibako lehendakaria José Ignacio Egaña izan zen, Oñatiko Zahor txokolate-lantegiko nagusia.

Aldamioekin gertatu zen bezalaxe, kasualitatearen ondorioz hasi zen ULMA hesiak produzitzen; 1965. urtean Errepideko Txirrindularitzako Mundu Mailako Iraupen Lasterketa ospatu zen Lasarten (Gipuzkoa) eta ULMAk 4.000 hesi eta 4.000 tribunako eserleku egin zituen.



ULMA Construcción; Obra bakoitzerako irtenbide integrala

ULMA Construcción negozioak eraikuntzarako sistema industrializatuak fabrikatzen eta merkaturatzen ditu. Bezeroei honako zerbitzuak eskaintzen dizkie: proiektu teknikoa, materialen alokairua eta muntaia-zerbitzua; bestalde, Europako produkzio-planta handienetakoa du eta prozesu guztiak automatizatuta eta robotizatuta daude. 1994. urtetik ISO 9001 ziurtagiria du.

ULMA Construcción negozioak enpresa-bikaintasunean oinarritutako proiektu bat garatu du, pertsonetan, garapen integralean eta bezeroen eta lankideen asetasunean oinarritutakoa, hala, gure inguruaren nahiz ingurunearen hobekuntza lortzeko eta kooperatiben esparruan aberastasuna eta enplegua sortzeko. Horretarako, ULMAk, eraikuntzaren sektorearen barnean, beste azpisek-

tore hauetan ere parte hartzen du: edifikazioa, obra zibila, aldamiu industrialak eta aisialdia, zerbitzuak eta ikuskizunak.

ULMA Construcción negozioak sare tekniko eta enpresarial propioa du, Espainian 20 ordezkari baina gehiago ditu eta filialak Frantzia, Portugalen, Txilen, Herbeheretan, Argentinan, Brasilen, Perun, Alemanian eta AEBetan; horrez gain, Europako nahiz Latinoamerikako hainbat herrialdetan bazkide garrantzitsuak ditu.

Azken batean, ULMA Construcción negozioak Zerbitzu Integraleko kontzeptua du, irtenbideen eta sistemen eskaintzan oinarritutakoa, eta Europa mailan etorkizun handiko enpresa da, lehiakorra eta NAZIOARTEKO bokazio argiarekin.

José Luis Madinagoitia – Lehendakaria

"Koopratiben kultura sustatu eta garatu behar dugu, garai berrietara egokituz"

"**ULMA Construcción eta ULMA Agrícola negozioek**, lehenago zehaztutako enpresako helburuarekin bat etorritik, hots, nazioartean eraikuntzaren eta obra zibilaren esparruetan aldamierei eta enkofratuei dagokienez lehenengo maila izateko helburuarekin bat etorritik, azken urteetan hazkunde garrantzitsua izan dute, ezartzen ari den internazionalizazio-estrategiari, bere jarduera obra zibilaren sektorerara hedatzeari eta Espainiako merkatuan duen presentzia sendoari esker.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar gure enpresa-proiektua, enpresaren MISIOAN zehaztutakoaren arabera, bikaintasunean, pertsonetan eta garapen integralean oinarritu behar dela eta bezeroen nahiz kanpoko lankideen asetasuna eta gure ingurua eta ingurunea hobetzea bilatu behar duela; horrez gain, **koopratibaren esparruan** aberastasuna eta enplegua sortu behar ditu.

Lehendakari naizen aldetik, proiektu hori ikuspegi sozialetik lortzeko baliabideak jartzeko lan egin nahi dut; ikuspegi soziala enpresa-ikuspegiaren ondoan joango da eta koopratiben kultura sustatu eta garatu behar dugu, kultura hori bizitzea egokitu zaigun garaira egokituz. Internalizazio-prozesuek eta globalizazioak zaildu egiten dute koopratiben filosofia klasiakoaren aplikazioa. Baina egoera honen aurrean bai guk eta bai gure antzeko prozesuetan murgilduta dauden beste koopratiba batzuek zerbait egin beharra dugu; hala ere, enpresa multinazional tradizional bihurtu beharrean –horien ikuspegi koopratibo

bakarra enpresa nagusia baita–, irudimena erabili beharko dugu koopratibak integratzeko irtenbideak bilatzeko, gero eta handiagoa den gure enpresa-proiektuan parte hartzen duten pertsona guztiak barne hartu ahal izateko. Hurrengo hamarkadan horixe izango da, nire ustez, gure erronka sozial nagusia; zaila da, baina gure printzipioekiko koherentea da."



Carmelo Bilbao – Gerentea

"Lehen postua lortzeko enpresa-erreferente izatea lortu behar dugu"

"Enpresa-proiektu honetan lan egiten duten pertsona guztiak agurtu nahi ditut lehenik eta behin. ULMA Construcción eta ULMA Agrícola negozioa gure inguruan nahiz kanpoan kalitate erreferentea da. Kanpoko bezeroek egiten duten balorazioa bikaina da eta gure lehia-kideen eredu gara. Barneko bezeroengan ilusioa mantentzen dakien eredu koopratiboa, langileak proiektuan inplikaturik gure helburu berberak dituzten enpresa handiekin lehiatu gaitzekela erakusten duena; enpresa handi horiekin dagoen aldea giza baliabideen balorazioa da, haiek kontuan izaten ez dituzten bitartean guk horren alde egiten baitugu apustu.

Hurrengo urteetan hazi egin behar dugu eta, beraz, arrisku gehiagori egin beharko diogu aurre. Batez ere proiektuan parte hartuko duten pertsona gehiago behar ditugulako eta, pertsona horiek, salmenta, muntaia, zerbitzua, ingeniariaritzak, alokairua... eta antzeko beste aldagai batzuk maneiatzea zaila dela jakin behar dute, baina pertsona guztien ahaleginari esker lor daitezke, eta pertsona horiek beste inork baino ilusio-maila handiagoa lortuko dute. Une honetan, bazkideak eta bazkide ez direnak, filialetan eta enpresa nagusian lan egiten dutenak kontuan hartuta, 1.600 pertsona inguru gara eta, filialak eta ordezkariak bisitatzen ditugunean ohore handia da hain denbora laburrean inguru horietako pertsonengana transmititu dugun ilusioa ikustea eta helburuak eta gure eredu koopratiboa nola bereganatu duten behatzea. Eredu hori Oñatin jaiotzen duela hainbat urte eta hasieratik hau guztia posible izan dadin lan egin duten pertsonak harro egon behar dute lortutakoa ikusita.

Belaunaldi berriok historia errespetatu behar dugu eta gure helburuak, hots, hazkundera, enplegua eta aberastasuna, lortzeko ahalegina egiten jarraituko dugu."



ULMA Construcción 2003ko produktuak

> Eraikuntza,

- Enkofratu bertikalak,
- Enkofratu horizontalak,
- Eskoratzak eta zinbriatuak,
- Enkofratu-taulak,
- Aldamioak.

> Obra zibila,

- Enkofratuetarako sistema igo-kariak,
- Zinbriatuak eta zubi-enkofratuak,
- Aurreratzeko orgak,
- HCR hormigo trinkotuko pre-setarako enkofratua,
- Harri-lubeten pre-setarako pantaila,
- Hormigoitze jarraituko ekipoak,
- Ekipo bereziak,

> Aldamio industrialak,

(Industria-sektoreak: Siderurgikoa, Nekazaritza eta Elikadura, Zementua, Papera, Ontzigintza, Petrokimikoa etab.)

- Norabide anitzeko BRIO aldamioa

> Aisialdia, zerbitzua eta ikuskitzuna,

(Kultur eta kirol-ekintzak.)

- Norabide anitzeko BRIO aldamioa (behin-behineko eszenarioak eta aterpeak)

PROFIL ESTRATEGIKOA

> Kudeaketari buruzkoa

- Hedapen eta Zuzendaritza Estrategikoa
- Bezeroarekiko Elkarreragina
- Pertsonen Inplikazioa
- Prozesuen Kudeaketa

> Negozioari buruzkoa

- Internazionalizazioa
- Obra Zibila eta Etxebizite-tarako ez den Eraikuntza
- I + G + b
- Salmenten Indarra

ULMA Agrícola:

Negoioari buruzko datuak



ULMA Construcción negozioak aurreikusitako hazkunde-helburuak lortu zituen 2002. urtean eta salmentetan nahiz merkatuko partaidetzan orain arteko errekor guztiak hautsi zituen.

2002. urtea urte gogorra izan zen eta lehiakide nagusiek arazoak izan zituzten, zenbait enpresak ordainketa-etenaren ezarri baitzuten. Hala ere, ULMAk 2001ean lortutako mailari eutsi dio.

Eraikuntzan –nagusia– lortutako fakturazioak aurreikuspenak gainditu zituen eta % 115eko ehunekoa lortu zuen. Finkatutako kopuru horren bila-kaerak aurreko ekitaldiko lorpenak gainditu zituen (% 7 gehiago gutxi gorabehera) eta 194,9 M euro izan ziren guztira, aurreikusitakoaren % 107. ULMA Agrícola negozioak aurreko urteko fakturazio berbera lortu zuen, baina nazioarteko ekarpenak handitu egin ziren eta negozioaren zifraren kopuru osoaren % 27,8ko maila lortu zuen.

Salmenten hazkunde honek 2001. urtean lortutako irabaziaz berdindu zituen, baina aurreikusitakoa baino % 24 gehiago. 2002. urteko etekina % 6,7 izan da.

2003rako aurreikuspenak

ULMA Construcción negozioak 2003. urterako aurreikusitako Salmenten Plan Finkoak urte honetarako aurreikusitako ekintza nagusiekin eta aldi honetako (2002-2005) jarduketaren estrategiekin bat etorri behar du; horrez gain, helburu nagusia nazioartean eraikuntzaren eta obra zibilarren esparruetan aldamierei eta enkofratuei dagokienez lehenengo maila izatea da.

Azkenik, ULMA Construcción negozioak merkatuari nahiz produktuari dagokienez hazten jarraitzen duela esan behar da, enpresaren misioa eta helburuak betetzeko urratsak ematen jarraitzen duela.

ULMA Agrícola Nola sortu zen?

Hirurogeita hamarrek hamarkadaren bukaeran, merkatua krisian zegoela, hein batean, krisialdi horren ondorio negatiboak arintzeko helburuarekin, ULMAk negozio-jarduera berri batzuk garatu zituen, une hartako merkatuarekin nahiz produkzio-gaitasunarekin eta teknologiarekin bat etortzeko. Hala, bada, barnean fabrikatutako tutuaren kanpoko merkataritza abian jarri zuen, aluminiozko arotzeria eta profileria merkatuz hasi zen eta berotegiak fabrikatzen eta saltzen hasi zen.

Hiru jarduera berri horiek ez zuten arrakasta berbera izan, baina berotegien fabrikazioa, produkzio-joera aprobetxatzeko aukera batetik sortutakoa, garai kritiko horretan laguntza osagarri handia izan zen eta, salmenta handiak lortu ez bazituen ere, jardueraren bolumenak gora egin zuen.

Poliki-poliki merkatuko kuota handitzen joan zen, gaur egungo ULMA Agrícola negozioa bihurtu arte.



Irudian, ULMA Agrícolak egindako berotegia Olalde baserrian, 70eko hamarkadaren amaieran.

sektorearen industrializaziorako berotegiak



Gaur egun, ULMA Agrícola negoziok nekazaritzako produzitzailearekin batera lan egiten du, aterpe baxuko laboreetan produkzio-sistemen eskaintza integrala eginez, hala, sektorearen industrializazioa bultzatzeko.

Hasiera batean, ULMA Agrícola negoziok tunel itxurako berotegi-egiturak fabrikatzen zituen eta horiek ez zuten muntaia-zerbitzurik behar; baina gaur egun nekazaritzaren sektoreko eskakera ez da laboreak estaltzeko egituren hornikuntzara mugatzen eta nekazariak produkzio-zentroetan inbertitzen dute eta maila handiagoko proiektuak eskatzen dituzte: aholkularitza, salmenta ondoko zerbitzua etab.

ULMA Agrícola negoziok ULMA Construcción negozioren baitan antolatuta dago eta oinarriko hainbat zerbitzu partekatzen dituzte, baina beste alderdi batzuetan negozio independente gisa lan egiten du. Hauek dira departamentu nagusiak: Nazioartekoa, Teknikoa, Merkataritza Nazionala, Produktiboa-Logistikoa eta Muntaiak.

Nazioarteko departamentuan bost pertsonak egiten dute lan eta, orain arte, gutxi gorabehera 30 bat herrialdetan egin dira instalazioak. Txinan eta Turkian hitzarmenen bidez lan egiten du eta gainerako inguruak Oñatitik bertatik kudeatzen dira, Mexiko izan ezik, bertan bizi baita komertzialetako bat. Bestalde, ULMA Agrícola negoziok esportazio-partzuergo bateko kide da, NUTEKA partzuergokoa;

Murtzian du egoitza eta aterpe baxuko laborearen alderdi guztiak lantzen ditu. Departamentu Teknikoan adar teknikoko eta elektronikoko lau ingeniari egiten dute lan eta departamentu honen helburua nekazaritzaren adarreko ingeniariak laneratzea da.

Espainiako sarea zazpi komertzialek osatzen dute eta horietako hiruk Almerian kokatutako egoitzan egiten dute lan, balio estrategiko handiko ingurua baita hori eta Espainiako hego-ekialde guztia hartzen baitu. Produkzio-departamentua gure produktuaren fabrikazioaz, erosketen kudeaketaz eta zerbitzu logistikoaz arduratzen da. Muntaia-zerbitzua eskualdeka antolatutako lau buruen bidez eskaintzen da, eta buru horiek talde autonomoen sare zabala koordinatzen dute.

2003. urtean garatutako proiektuen artean ondokoak azpimarratu behar dira: Indian egindako BEST ROSES proiektua, 6 hektareatakoa, 15 Ha. hartzen dituzten 7 proiektu Almeria inguruan eta maila teknologiko handiko hainbat proiektu Gipuzkoan eta Bizkaian.

Aurtengo ekitaldiari dagokionez, ULMA Agrícola negoziok AENOR-en "N" marka lortzeko bidean da, UNE EN 13031-1 Europako Araua (duela gutxi Espainiak onartutakoa) betetzen dela bermatzen duena. Une honetan Espainia mailan Arau hori beteko duen lehenengo proiektuan ari gara lanean.

PROFIL ESTRATEGIKOA

- > Bezeroari irtenbide integrala eskaintzea: aholkularitza, egitura, kontrol klimatikoa, ekipamenduak, muntaia eta salmenta ondoko zerbitzua.
- > Erabateko kalitatean oinarritutako kudeaketa-estrategiaren eta antolamendu-ereduaren garapena.
- > Prozesuak kudeatzea eta "irtenbide integralaren" arabera egoitzea.
- > Estrategiak eta helburuak zabaltea, Misioa, Ikuspegia eta Balioak definituz eta barneratuz. Bezeroen asetasuna neurtzeko sistema ezartzea.
- > Pertsonen garapena eta inplikazioa.

Jose Irizar –

ULMA Agrícola negozioko zuzendaria

"Nazioarte-mailan

Irtenbide Integraleko

lehen postua lortu nahi dugu"

"ULMA Agrícola negoziok azken urteetan labore intentsiboaren edo berotegiko laboreen sektorearen aldaketa sakonaren ondorioak jasan ditu. Urte gutxi batzuetan, tunelak edo instalazio bakunak egiteko berotegi konplexuak eskaintzera pasa gara, proiektuen arrakastan eragina duten alderdi asko ezagutzen ez dituen merkatuaren barnean.

Merkatu zorrotzenen presioaren ondorioz lehen sektorea oso azkar garatu da eta urte osoan lehen mailako nekazaritzako produktuak produzitzeko aukera emango duen industrializazioa sortu da. Horren ondorioz, teknologikoki aurreratutak diren enpresa osagarrientzat espazio interesgarri bat sortu da.

Gaur egun negozioren alderdi estrategikoak eguneratzen ari den pertsona gazteez osatutako talde ona dugu: internazionalizazioa, produktuak Europako arategiaren arabera egokitzea, kontrol klimatikoa, produktu berrien garapena, muntaien soluzioak, produkzio logistikoaren hobekuntza eta aurrerakuntza teknologikoak merkaturatzea.

Datozen urteetan irtenbide integralak eskaintzeko gai izan nahi dugu, nazioartean lehiakortasun handiko merkatu honetan bezeroen edozein beharri erantzun ahal izateko".



40 urte elkarrekin

Director gerente, al habla

D. Julio Saiz, de Talleres ULMA, S. C. L.



Nos habíamos detenido ante un «stand» para mirar unas tablas de chocolate, expuestas en una estantería. No teníamos ni idea del «stand» ante el que estábamos y, por un momento, nos figuramos encontrarnos delante de alguna industria chocolatera.

Nos extrañó la diversidad de marcas y, ya íbamos a buscar explicación al hecho, cuando reconocimos a la figura amiga de don Julio Sáiz, que vino a sacarnos de dudas.

Resulta que el señor Sáiz es el director gerente de Talleres Ulma, Sociedad Cooperativa Industrial, que es la firma que expone en aquel acotado. Y ya, en el cambio de la charla amistosa, el hombre nos fue explicando pormenores de la firma que dirige.

Es la primera vez que concurre a este certamen, entre otras cosas, porque hace apenas dos años que se creó la entidad.

—¿Cuál es el fin de «Talleres Ulma, S. C. L.», señor Sáiz? —le empezamos preguntando.

—Ha sido creada con el único y exclusivo fin de fabricar máquinas para el empaquetaje de chocolate, las cuales, por su trabajo, han de ser de gran precisión.

—¿Cómo nació la idea de crearla?

—El estudio del mercado nos la proporcionó. Se hacía sentir la necesidad, en esta industria, de una máquina que, sin ser muy lenta, tampoco fuera excesivamente rápida. Es decir, hacia falta que estuviera de acuerdo con lo que la industria nacional precisa hoy día.

—¿Y su fabricación es enteramente nacional?

—Por completo. Y es esencialmente importante hacer constar que todas las piezas de esta máquina están troqueladas para que, caso de deterioro de alguna de ellas, sea más fácil solicitarla.

—¿Cuáles son las principales ventajas de esta máquina?

—Esta máquina, puesta en el mercado para atender las necesidades de los industriales españoles, no es exactamente una novedad, pero sí una máquina atractiva, que por su precio asequible, es muy deseada. Otra de las ventajas que posee es la de la simplicidad en su manejo. No hay en ella nada complicado y por eso, cualquiera que preste atención puede atenderla, sin especialización alguna.

—Otra de las circunstancias que la hacen deseable —continuó el señor Sáiz— es que puede transformarse con facilidad para en-

volver diferentes tipos, desde la barra hasta la tableta de 500 gms. —¿Tiene «Talleres Ulma, S. C. L.», muchas máquinas funcionando ya en las industrias españolas? —Actualmente funcionan veintidós (exactamente iguales todas ellas a las de la fotografía que ilustra esta información) a total satisfacción de sus usuarios. —¿Qué proyectos tienen ustedes? —Como base de nuestro programa futuro se puede anunciar que hemos puesto en marcha la ampliación de los talleres, medida a la que nos hemos visto obligados, por la creciente demanda nacional, así como nuestro gran interés de desarrollo hacia el exterior, es decir, para exportación de ella. Ya tenemos, sin haber iniciado casi el plan, máquinas funcionando en Francia y Portugal y, como las de aquí, con excelentes resultados. Una vez realizada esta ilusión, creemos con ella dar cumplida cuenta a nuestras más inmediatas aspiraciones y esperamos asimismo, poder prestar nuestro apoyo al desarrollo industrial de España. —¿Evolucionan las máquinas muy rápidamente? —Nuestra sección técnica está siempre pendiente de las novedades relativas a esta clase de máquinas. Presta una atención constante a la mecanización de la envoltura y al propio tiempo, dicha sección está a disposición de cualquier petición que nos hagan los industriales, sobre problemas que pueden plantearse.

Con esto quedó terminado nuestro impensado cuestionario. Pero seguimos hablando y el señor Sáiz nos rogó que no termináramos esta entrevista sin llevar a los chocolateros (que se reunieron días pasados en Barcelona en asamblea de industrias chocolateras y en su consecuencia tuvieron la gentileza de pasar por el «stand» para saludarlos), el testimonio de su agradecimiento, como igualmente a todos los componentes de la organización ferial, por las facilidades dadas para que la asistencia de «Talleres Ulma, S. C. L.», a la XXXI Feria Oficial e Internacional de Muestras de Barcelona, primera a la que concurren, fuera un hecho.

Y entrados en el capítulo del agradecimiento, démoselas nosotros también a «Talleres Ulma, S. C. L.», por las facilidades que nos han dado para llevar a cabo esta información.

Así pues, ¡muchas gracias! envueltas en papel de estafío.

R. H. L.

Y entrados en el capítulo del agradecimiento, démoselas nosotros también a «Talleres Ulma, S. C. L.», por las facilidades que nos han dado para llevar a cabo esta información.

Así pues, ¡muchas gracias! envueltas en papel de estafío.

R. H. L.

Y entrados en el capítulo del agradecimiento, démoselas nosotros también a «Talleres Ulma, S. C. L.», por las facilidades que nos han dado para llevar a cabo esta información.

Así pues, ¡muchas gracias! envueltas en papel de estafío.

R. H. L.

Así pues, ¡muchas gracias! envueltas en papel de estafío.

R. H. L.

Así pues, ¡muchas gracias! envueltas en papel de estafío.

R. H. L.

Así pues, ¡muchas gracias! envueltas en papel de estafío.

R. H. L.

Así pues, ¡muchas gracias! envueltas en papel de estafío.

R. H. L.

Así pues, ¡muchas gracias! envueltas en papel de estafío.

R. H. L.

Así pues, ¡muchas gracias! envueltas en papel de estafío.

R. H. L.

Así pues, ¡muchas gracias! envueltas en papel de estafío.

R. H. L.

Así pues, ¡muchas gracias! envueltas en papel de estafío.

R. H. L.

Así pues, ¡muchas gracias! envueltas en papel de estafío.

R. H. L.

Así pues, ¡muchas gracias! envueltas en papel de estafío.

R. H. L.

Así pues, ¡muchas gracias! envueltas en papel de estafío.

R. H. L.

Así pues, ¡muchas gracias! envueltas en papel de estafío.

R. H. L.

Así pues, ¡muchas gracias! envueltas en papel de estafío.

R. H. L.

Así pues, ¡muchas gracias! envueltas en papel de estafío.


R. H. L.

Así pues, ¡muchas gracias! envueltas en papel de estafío.

R. H. L.

Así pues, ¡muchas gracias! envueltas en papel de estafío.

R. H. L.



ERRETIROA HARTU DUTENAK:

2003ko irailaren 1etik abenduaren 31ra bitartean ULMA Taldearen barnean erretiroa hartu dutenak.



ANGEL MARIA ZUBIA



NARCISO FERNANDEZ



CECILIO MOLINA



DIONISIO MALAVIA



JAVIER GOROSABEL

Eskerrik asko eta goza dezazuela! Zorionak!



IRADOKIZUNAK

Animatu eta bidali iradokizun gehiago honako helbideetara:

ULMA Taldea
Departamentu Nagusiak
Otañui Pasealekua, 3 – 13 p.k.
20560 OÑATI
Erref.: BEGIRA
begira@ulma.es

Oraingoan jaso ditugun iradokizun eta inkesta guztietatik Hormigón Polímero Negozioan lan egiten duen **Jaione Uriartek** irabazi du Toti Martínez de Lezearen **La Voz de Lug** liburua.



GRUPO ULMAko erretiratuen omenaldia. Irudian, ULMAko hainbat langile ohia, urriaren 31ean Oñatin, euren omenez, antolatzen jaietan.

Idatz dezagun denon artean gure historia!



60's

Gure irakurleei;

Begira aldizkariaren hurrengo zenbaitik aurrera ULMAren historiako gehigarri bereziak argitaratuko ditugu. Otsaileko zenbakian 60ko hamarkada aztertuko dugu eta ULMAren hasierako garaiak ahal dugun modu zehatzenean deskribatzen saiatuko gara; horrez gain, ULMAren hasierako urte haietan Oñatiko herria eta jendea nolakoa zen ere agertuko dugu.

Horretarako, gustura hartuko genuke gehigarrian agertzea nahi duzuen edozein ideia edo iradokizun; garai hartako gai zehatzen bati buruzko pasadizoren bat ezagutzen baduzue ere horren berri ematea eskertuko genizueke.

Bestalde, lehenengo urte haietako agiriak, argazkiak, bideoak, albisteak etab. baldin badituzue, ondoko helbidera bidaltzea eskertuko genizueke, aldizkarian argitaratu ahal izateko:

Postaz:

ULMA

E-mailez: begira@ulma.es

Departamentu Zentralak

Otadui Pasealekua, 3 – 13 p.k.

20560 OÑATI (Gipuzkoa)

Azkenik, edozer gauza argitzea nahi baduzue edo edozein zalantza baldin baduzue, Mila Barrutiarengana jo dezakezue ULMA Taldeko Departamentu Zentraletan (Telefona: 943 03 49 00). Eskerrik asko aurrez emandako laguntzarengatik.

Har ezazue parte proiektu berri honetan!